

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua
GRADU AMAIERAKO LANA

Ovidioren “Heroides. Libri VII-XII”
testuaren euskarazko itzulpena eta oharrak

Ikasketa Klasikoak Saila

Ikaslea: Ane Zurutuza Irastorza

Ikasturtea: 2016/2017

Tutorea: Gidor Bilbao Telletxea

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzean

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honen helburua Ovidio autorearen *Heroides* obraren zati bat euskaratzea da. *Heroides* fikziozko eskutitz bilduma bat da; hain zuzen ere, mitologia eta literatura klasikoko pertsonaiek haien maiteei idatzitako eskutitzen bilduma. Honako lan honek, zehazki, VII-XII eskutitzak landuko ditu.

Itzulpena egitean buruan izan dudana hartzailearen profila literaturazale kultuarena da, latinik ez dakiena; betiere jatorrizko testua ahalik eta gehien errespetatuz, itzulpena hizkuntza ulergarria erabiliz egiten saiatu naiz. Aipatutako irakurle potentzial horrek ez du zertan mitologia klasikoari buruzko jakintza handirik izan behar; hori ikusita, eta testua ahalik eta hoberen ulertzeko, oin-oharrak gehitu ditut hainbat zatitan, erromatar kultura eta mitologiari buruzko nozio minimo batzuk emanez. Oin ohar horiek txertatzeko erabili dudana irizpidea ondorengoa izan da: ni ere mitologian eta literatura klasikoan aditua ez naizenez gero, kontsultatu behar izan dudana kontzeptu ororen azalpen txikia egin dut.

Ovidioren testua, noski, latinez idatzita dago. Nik ez dakit latinik, eskolan urte bakarra eman bainuen; horregatik, ezinezkoa izango zen niretzat itzulpena jatorrizko testutik egitea. Zubi-hizkuntzak erabili behar izan ditut; hain zuzen ere, gaztelaniazko bat eta ingelesezko bat. Batez ere gaztelaniazkoa izan dut oinarri, latinezkotik oso gertu baitzegoen. Bertsio horretan, edukia latinetik gertu mantentzeari eman diote lehentasuna, formaren edertasunaren gainetik. Ingelesezkoan, berriz, itzultzaileak era libreagoan itzuli du. Gainera, itzulpena 1914. urtekoa da; beraz, nahiko librea izateaz gain, ez zen ulertzeko bereziki erraza. Hala ere, beti izan dut aurrean latinezko bertsioa, eta zalantzaren bat sortu zaidanean, saiatu naiz, hiztegia baliatuz, esaldien esanahia latinezko bertsioetik ateratzen.

Heroides testu poetiko bat da, eta neurtitzetan dago idatzita. Lana hasterakoan hartu behar izan nuen erabakia neurtitz horiek mantendu edo ez mantentzearena izan zen. Tutorearen gomendioak jarraituz, nik prosaz itzultzea erabaki nuen, aurrerago azalduko ditudan arrazoen ondorioz. Paragrafoak zatitzeko, gaztelaniazko prosazko bertsioak zekarren egitura berbera mantendu dut.

Lanaren egiturari dagokionez, hainbat zatitan banatu daiteke. Hasteko, Ovidiori buruzko oinarritzko informazioa txertatu dut. Bere bizitzari buruz aurki daitekeen informazioaren laburpena, batetik; bere obrari buruzko oinarritzko datuak, bestetik;

itzulpena hobeto ulertzeko, ezinbestekoa baita autorea eta bere obra ezagutzea, gaineratik bada ere.

Ondoren, itzulpen prozesuari buruzko iruzkina egin dut; bertan, itzultzen hasi aurretik egindako testuaren azterketari buruz aritzen naiz; itzulpen prozesuan zehar sortutako arazoak eta horiei emandako konponbideak azaltzen dira.

Hurrengo zatia itzulpena bera da, lanaren zati luze eta garrantzitsuena. Bukatzeko, erabilitako iturrien bibliografia txertatu dut.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
Ovidio eta bere lanak	4
Itzulpen prozesua	5
Itzulpen arazoak	6
ITZULPENA	12
VII	12
VIII.....	18
IX.....	22
X.....	28
XI.....	32
XII	36
BIBLIOGRAFIA	43

SARRERA

Ovidio eta bere lanak

Ovidio (Publius Ovidius Naso) Sulmonan jaio zen (Peligna, gaur egungo Italia) K.a. 43 urtean, eta Tomisen zendu zen (gaur egungo Konstantza, Errumania) K.o. 17 urtean.

Zaldun-tradizioko familia aberats bateko semea zen. Erroman ibili zen, zuzenbide eta erretorika ikasketak egiten. 18 urterekin, poesia-errezitalak eskaintzen zituen. Gaztetan saiakera egin zuen politikagintzan, baina laster itzuli zen poesiagintzara. Hiru aldiz ezkondu zen. Nahiko bizkor bihurtu zen ospetsu, baina bere *Ars Amatoriak* (edo ezagutzen ez dugun beste arrazoiren batek) Augusto enperadorea samindu eta erbestera bidali zuen, Tomis izeneko hirira, Itsaso Beltzaren ertzean. Bere bizitzaren amaieran poesia idazten jarraitu zuen, eta bertan hil zen, K.o. 17. urtean (Bilbao, 2002).

Hauexek dira Ovidioren lanak, ordena kronologikoan.

- *Amores* (Amodioak)
- *Medea*: galdutako tragedia
- *Heroides* (Heroienak)
- *Ars amatoria* (Maitasun-ikasbidea)
- *Remedia amoris* (Maitasun-sendabidea)
- *Medicamina faciei femineae* (Eme-begitartearentzako sendagaiak)
- *Metamorphoses* (Metamorfosiak)
- *Fasti* (Jai-egunak)
- *Tristia* (Saminak)
- *Epistulae Ex Ponto* (Gutunak Pontotik)
- *Ibis*
- *Halieutica*
- *Nux* (Intxaurrondoak)

Heroides obrako poemak mitologiako pertsonaiek (gehienetan emakumeek) haien senar edota maitaleei bidalitako gutunak dira; hain zuzen ere, 21 gutunek osatutako bilduma da. Adituek ez dute lortu obraren argitaratze dataren inguruan ados jartzea; hala ere, teoria nahiko onartua da bi multzotan idatzi eta argitaratu zirela. Lehenengoan, lehen

hamabost poemak sartzen dira, K.a. 10. eta 3. urteen artean argitaratuak. Hainbat urte geroago, azken sei eskutitzak argitaratu zituen, K.o. I. mendearen hasieran (Moya, 1986).

Esan bezala, eskutitz gehienak emakumezko pertsonaia mitologikoek idatzitakoak dira. Alabaina, salbuespen gutxi batzuk daude. Batetik, eskutitzetako bat Safok idatzia da, benetan existitu zen poeta greziarra; beraz, kasu honetan, ezin dugu esan fikziozko pertsonaiak idazten duenik. Bestetik, eskutitzetako hiru gizonek idatziak dira: Parisek, Leandrok eta Akontiok, hurrenez hurren, haien maitaleek idatzitako eskutitzei erantzunez (XVI, XVIII eta XX. eskutitzak).

Estiloari dagokienez, erretorika-eskoletan egiten ziren ariketen estilo berean daude idatzita, pertsonaia ezagunen irudi berriak asmatuz eta benetako gizaki bihurtuz.

Itzulpen prozesua

Lana hasi aurretik, hainbat erabaki hartu behar izan nituen. Lehena itzulpenaren hartzailea finkatzea izan zen; hau da, nori dago zuzenduta nire itzulpena? Ikusita testu poetiko bat dela, eta, gainera, mitologia erromatarreko gaiak lantzen dituela, tutoreak proposatu zidan itzulpena latinik ez dakien literaturazale kultuari zuzentzea. Horregatik, eta betiere jatorrizko testua ahalik eta gehien errespetatuz, itzulpena hizkuntza ulergarri bat erabiliz egiten saiatu naiz. Aipatutako irakurle potentzial horrek ez du zertan mitologia klasikoari buruzko jakintza handirik izan behar; hori ikusita, eta testua ahalik eta hoberen ulertzeko, oin-oharrak gehitu ditut hainbat zatitan, erromatar kultura eta mitologiari buruzko nozio minimo batzuk emanaz. Oin ohar horiek txertatzeko erabili dudana irizpidea ondorengoa izan da: ni ere mitologian eta literatura klasikoan aditua ez naizenez gero, kontsultatu behar izan dudana kontzeptu ororen azalpen txikia egin dut.

Bigarren erabakia itzulpena poesian ala prosan egingo nuen finkatzea izan zen. Tutorearen gomendioa prosaz egitea izan zen, eta aukera egokiena iruditu zitzaidan niri ere. Ovidiok poesian idatzi zuen *Heroides*, baina poesia-itzulpena beti da arazotsua. Nire iritziz, poesia ez da soilik metrika eta errima jakin batzuk mantentzea, poesiarako erraztasuna eduki behar da, eta nik ez dut uste halakorik dudarik. Horregatik, itzulpen poetiko kaskar bat egin aurretik, nahiago izan dut prosazko testu txukun bat sortu. Horretarako, gaztelaniazko prosazko itzulpenaren (Moya del Baño, 1986) egitura jarraitu dut.

Gaztelaniazko testua aipatu dudanez, itzulpena egiteko erabili ditudan testuak aipatuko ditut. Esan bezala, nire latin maila oso oinarritzkoa da, institutuan urtebete soilik ikasi bainuen. Horregatik, gaztelaniazko zubi-testua (Moya del Baño, 1986) izan da nire iturri nagusia. Oso itzulpen fidela da, hitzez hitzezkoa ia, formari baino gehiago autorearekiko fideltasunari eman diona lehentasuna; sorburu testu gisa hartzeko egokia. Ingeleseko itzulpen bat ere izan dut aurrean (Showerman, 1914), baina itzulpen oso librea du, libreegia nik oinarri hartzeko; beraz, gaztelaniazkoak arazoren bat eman didanean erabili dut, batez ere. Latinezko testua ere beti eduki dut ondoan, aipatutako bi liburuek baitzekarten. Hala ere, kasu batzuetan ezberdintasunak ikusi ditut latinezko bi bertsioren artean ere. Halakoetan gaztelaniazko liburuan zegoen bertsiola lehenetsi dut; izan ere, nire itzulpena batez ere liburu horretatik eginga da. Gainera, tutorearen laguntza izan dut ulertzen ez nituen zatiak azaltzeko eta nire itzulpena nik ulertzen ez nuen latinezko bertsiorekin orekatzeko, zubi-hizkuntzaren erabilerak suposatzen dituen galerak minimizatzeke asmoz.

Itzulpen arazoak

Atal honetan itzulpen prozesuan zehar aurkitu ditudan zailtasun nagusiak bildu ditut; horrekin batera, gogoan izan ditudan konponbide posibleak azaldu ditut, azkenean aukeratu dudana itzulpena aipatu dut, eta berau aukeratzeko arrazoiak azaldu. Horretarako, zailtasun bakoitza antzekoak zirenekin multzokatu dut, sailkapena hobeto uler dadin.

Dokumentazio lana eskatu didaten elementuak

Itzultzerako orduan aurkitu dudana arazo nagusietako bat erromatar mitologiarekiko dudana ezjakintasunak sortu du. *Heroides* liburuan, mitologiako emakumeek haien maitaleei idazten diete, eta beren istorioetan azaltzen diren egiteez aritzen dira. Eskutitzak ulertzeko, ezinbestekoa da jakitea zein den pertsonaia horietako bakoitzaren historia, zein ekintzak eraman dituzten momentuan bizitzen ari diren egoera horietara. Gai horrekiko nire ezagutza eskasa zenez, itzultzen hasi aurretik istorio bakoitzari buruzko dokumentazio lana egin behar izan dut. Hainbat gauza bilatu behar izan ditut. Alde batetik, pertsonaia mitologikoen biografiak (horretarako, batez ere, Wikipediak baliatu naiz, betiere beste iturri batzuekin kontrastatuz); ez dut adibide zehatzik jarriko, itzuli ditudan sei eskutitzetan egin behar izan dudana lana denez gero. Oro har, ez da zaila izan informazio hori aurkitzea, nahiz eta kasu batzuetan ezinezkoa izan den euskaraz edo gaztelaniaz topatzea.

Arazotsua suertatu zaidan beste elementu bat pertsonaia mitologikoen eta tokien izenen euskarazko idazkera izan da. Euskaltzaindiak baditu zenbait arau gai honi buruz, eta behin eta berriz erabili ditut (76. araua, 1997; 82. araua, 1998). Hala ere, hainbat pertsonaien izenak ez daude arau horietan finkatuta; beraz, ez dago euskaraz horiek izendatzeko modu ofizialik, adibidez latinezko *Cecrops* edo *Aeacide* hitzak. Halako kasuetan, arauetan antzeko kasuetarako proposaturiko idazkeraz idaztera jo dut («Zekrope», «Eazida»), edo beste euskarazko iturri batean bilatu. Betiere, zalantza horiek tutorearekin kontsultatu eta hark argitu dizkit.

Azkenik, erreferentzia kulturelek ere zailtasunak sortu dizkirate. Hainbat kasutan, pertsonaiek erreferentzia egiten diete beste pertsonaien jatorriei, edota beren edo garaiko beste kultura batzuetako ohiko elementuei. Erreferentzia hauek ez dira mitologikoak soilik, baizik eta garaiko zibilizazioetako elementuekin dute harremana. Horren adibide dira, adibidez, orain azalduko ditudan elementu hauek:

(...) Nunc leuis eiectam continet alga ratem.

(Moya del Baño, 1986: 53)

Kasu horretan, gaztelaniazko bertsioan bertan oin-ohar bat azaltzen da, alga horiek esan nahi dutena azalduz. Garai hartan, itsasoan zebilen jendeak jakingo zuen itsas azalean algak agertzen zirenean, itsasoa haserre zegoela esan nahi zuela, eta hortaz ezin izaten zela nabigatu; gaur egun, ordea, jendeak ez du halakorik jakiten. Horregatik, nik ere oin-oharrea azaltzeko erabakia hartu dut.

Gauza bera gertatzen da hurrengo elementuarekin. Latinez, esaldi hau dakar:

Ausus es hirsutos mitra redimire capillos.

(Moya del Baño, 1986: 63)

Mitra Asiako emakumeek erabili ohi zuten apaingarria da, oin-oharrea azalduta dagoen legez. Aurreko arrazoi berarengatik, nik ere hala mantentzea erabaki dut.

Ausartu zinen zure ile-latza mitraz apaintzen.

(Zurutuza, 2017)

Esaldien egitura konplexuak

Zaila izan ohi da itzultzaileentzat jatorrizko testuen egitura eta hitz-ordenak bere horretan mantentzea. Lan honetan zehar, ahalik eta jatorrizko testuaren gertuenik mantentzen saiatu naiz, testuaren ulergarritasunak uzten zidan neurrian. Hainbat kasutan, baina, ezinezkoa egin zait, eta aldaketak egin behar izan ditut:

Exige, laese pudor, poenas et uiolataque lecti
Iura, neque ad cineres fama retenta meos
Vosque mei manes animaeque cinisque Sychaei
Ad quas, me misetam, plena pudoris eo.

(Moya del Baño, 1986: 49)

¡Reclamad la venganza, honor ofendido, y vínculo de matrimonio violado, [y fama, no conservada hasta mi muerte, y vosotros, manes míos, y espíritu y ceniza de Siqueo], a los que me dirijo, ay de mí, llena de vergüenza!

(Moya del Baño, 1986: 49)

Zuoi ari natzaizue: ohore iraindu, hautsitako ezkontza-promesa, [eta nire ospe ona, heriotzara arte mantendu ez dudana; eta zuoi, ene maneak, eta Sikeoren espiritu eta errautsok]. Zuoi ari natzaizue, ai ene, lotsaz beterik; joan zaitezte mendeku bila!

(Zurutuza, 2017)

Gaztelaniaz, elementuak latinezko ordena mantenduz eman dituzte. Ni ere saiatu nintzen hori egiten, baina oso esaldi aldrebesa eta ulertzeko zaila ateratzen zen. Hori ikusita, ordena aldatzea erabaki nuen. Hala ere, bere horretan mantendu nituen elementu guztiak, originaletik ahalik eta gutxien gal zedin.

Hitz konkretuek emandako arazoak

Heroides obran zehar, badaude hainbat hitz behin eta berriz errepikatzen direnak. Tutoreak esan didanez, oso ohikoak dira latinezko testuetan, eta buruhaustea izaten dira euskarazko itzultzailearentzat. Azpiatal honetan horietako batzuek eman dizkidaten arazoak azalduko ditut.

Arazotsuen suertatu zaizkidan hitzetakoak dira *pious* eta *impius*. Gaztelaniaz, arazorik gabe itzuli dituzte *pío* eta *impío* erabilita; euskaraz, ordea, ez dugu horren baliokide zuzenik. Elhuyar hiztegiak «jainkozale» eta «elizkoi» ematen ditu. Arazo honekin topatu nintzen lehen kasua honako esaldi honetan izan zen:

[ut pia fumosis addita tura rogis
Aeneas oculis vigilantis semper inhaeret]

(Moya del Baño, 1986: 46)

[como el piadoso incienso, echado en humeantes piras, Eneas no se despegaba de los ojos de la que siempre vela.]

(Moya del Baño, 1986: 46)

Hasiera batean, *pia fumosis* «intsentsu elizkoi» gisa itzuli nuen. Hala ere, «elizkoi» hitzak arazo bat sortzen zuen: irakurleak eliza kristauarekin lotuko zuen. Hortaz, erlijioarekin zerikusia zuen hitz bat aurkitu behar nuen, baina kristautasunarekin harremanik ez zuena. Azkenean, «jainkotiar» hitza hautatu eta esaldia honela utzi nuen:

[intsentsu jainkotiarra kea darion su-meta gainean botatzen den bezala, eta nire lorik gabeko begiek beti dute Eneas bistan.]

(Zurutuza, 2017)

Impius hitz arazotsua behin eta berriz atera da itzulpen lanean zehar. Elhuyarrek «fedegabe» eta «adeigabe» hitzak proposatzen ditu; Zehazki hiztegiak, aipatutakoez gain, «erlijiogabe». Hala ere, ez dira itzulpen egokiak; testuan hitz hori erabiltzen denean ez dabil erlijioari erreferentzia egiten. Hona hemen adibide bat:

Impia quid dubitas Deianira mori?

(Moya del Baño, 1986: 67)

Impía Deyanira, ¿por qué dudas en morir?

(Moya del Baño, 1986: 67)

Kasu hori, gainera, oso deigarria da, eskutitzaren azken lau paragrafoak esaldi horrekin amaitzen dira-eta. Hortaz, ezinbestekoa da arazo horrentzako konponbide egokia

aurkitzea, testuaren oso zati garrantzitsua delako. Tutorearekin eztabaidatu nuen, eta «lotsagabe» hitza proposatu nion, eta esaldia honela geratu zen:

Deianira lotsagabea, zergatik zaude hiltzeko zalantzatan?

(Zurutuza, 2017)

Badago beste hitz bat, gaztelaniazko bertsoan behin eta berriz agertu eta buruhaustek sortu dizkidana: *ojalá*. Euskaraz, «nahiago nuke», «ahal» eta «oxala» egiturak aurkitu ditut hiztegieta. Lehena, kasu askotan, ez da ondo gelditzen Ovidioren obraren testuinguruan, eta beste biak erabili ditut. Hona hemen esaldi horietako batzuen adibideak:

¡Ojalá tú también cambiases con los vientos!

(Moya del Baño, 1986: 47)

Zu ere haizearekin aldatuko ahal zara!

(Zurutuza, 2017)

Hona beste konponbide ezberdin bat:

Ojala hicieran los dioses que me vieras desde lo alto de la popa;

(Moya del Baño, 1986: 75)

Oxala jainkoek eragingo balute zuk ni popa gainetik ikustea;

(Zurutuza, 2017)

Aurretik aipatutako kontu batekin zerikusia duen arazo bat aipatuko dut bukatzeko. Esan bezala, mitologiako testuek duten ezaugarri bat da erlijioari erreferentzia asko egiten diotela. Gure mendebaldeko gizarte honetan, nahiz eta asko fededunak ez izan, kultura kristaua dugu, eta erlijio horretakoak izan ohi dira ezagutzen ditugun sinestun guztiak. Horrek eragiten du erlijioarekin zerikusia duen hitz bat ikustean kristautasunarekin lotzea. Itzulpen prozesuan zehar, mota horretako zenbait hitz edo esapiderekin topatu naiz.

(...) et senis Anchisae molliter ossa cubent!

(Moya del Baño, 1986: 52)

(...) y los huesos del anciano Anquises descansan en paz,

(Moya del Baño, 1986: 52)

Euskaraz *descansar en paz* itzultzeko, «goian bego» erabiltzen dugu. Esapide horrek, noski, kristautasunari eta haren zeruari egiten dio erreferentzia; beraz, ez da egokia kasu honetan. Baliokideak bilatzen saiatu nintzen, baina ez nuen aurkit. Nik neuk asmatu behar izan nuen baliokide bat, eta asko pentsatu ondoren, esaldia honela utzi nuen:

(...) eta Ankises zaharraren hezurak lasai egon daitezela lurperatuta,

(Zurutuza, 2017)

ITZULPENA

VII

DIDOK ENEASI

[Jaso itzazu, Dardanida,¹ hiltzeko prest dagoen Elisaren² bertso hauek; irakurtzen ari zaren hitzak dira nigandik irakurriko dituzun azkenak.]

Bere ordua heltzean, zisne zuriak Meandro alboko belar hezean botata kantatzen duen moduan mintzatzen natzaizu ni, baina ez nire erreguen bidez hunkitu nahi zaitudalako. Jainkoak kontra ditudala hasi dut eskutitz hau; baina behin nire izen ona eta nire gorputz eta arimaren garbitasuna galdua, huskeria iruditu zait hitz gutxi batzuk ere galtzea.

Erabaki duzu joatea, Dido zorigabea abandonatzea; eta zure belak eramango dituen haize berberak eramango du, halaber, zure promesa. Erabaki duzu, Eneas, zure promesarekin ontzien sokak askatu eta erreinu italiarren bila joan nahi duzula, non dauden ere ez dakizun arren. Ez zaizkizu axola ez Kartago sortu berria, ez haren inguruan eraikitzen ari diren harresiak, ez zure zetroari ezarritako boterea. Egindakotik ihesi zoaz, egiteke dagoenaren bila; munduan zehar bilatu behar da herri berria, eta zuk bilatu duzu honezkero. Baina herri hori aurkituta ere, nork emango dizu hura gobernatzeko boterea? Nork emango lioke ezezagun bati bere lurren gaineko jabetza? Beste maite bat izan beharko duzu, beste Dido bat, zeini promes egin eta berriro ere traizio egingo diozun. Noiz iritsiko da Kartagoren mailako hiri bat eraiki eta zure herritarrak zitadelatik ikusteko aukera izango duzun eguna?

Hori guztia gertatuta ere, eta zure hitzek berandutu egiten ez bazaituzte ere, non aurkituko duzu nik bezainbeste maitatuko zaituen beste emakume bat? Ezkoztatutako suzia sufrearekin kiskaltzen den moduan kiskaltzen naiz ni; [intsentsu jainkotiarra kea darion su-meta gainean botatzen den bezala, eta nire lorik gabeko begiek beti dute Eneas bistan.] Eneas da nire buruan egun eta gau. Eskergabekoa da bera, eta ez entzunarena egiten die nire opariei. Burugabea izango ez banintz, berarengandik libre izatea nahiko nuke. Baina ez dut Eneas gorroto, kalte egin nahi badit ere; aitzitik, bere leialtasun ezaz kexu naiz, eta zenbat eta gehiago kexatu, orduan eta gehiago maite dut. Errukitu zaituz,

¹ Troiarra, Troiako jentilizioa.

² Didoren izen feniziarra.

Venus, zure errainaz, eta besarka ezazu, Amodio anaia,³ zure anaia krudela. Izan dadila zure kanpamentuko soldadu,⁴ edo gutxienez, hura maitatzen hasi zen honi (eta ez naiz ez lotsa ez damu) eman diezaiola bera maitatzen segitzeko aukera.

Engainatua naiz, eta buruan dudan irudi hori gezurrezkoa da; Eneas ez da bere amaren izaerakoa. Zu harriek eta mendiek eta harkaitz gorenetan jaiotako haritzek sortu zintuzten; basapiztiek, edo oraintxe aurrean duzun itsaso horren antzeko batek sortu zintuzten zu; itsaso hori haizeak haserretu du orain ere, baina bertan murgiltzeko prest zaude, olatuen arriskuak ezagututa ere.

Nora zoaz ihesi? Neguak ez dizu utziko; jar dadila negua nire alde! Ikusi nola nahasten dituen Eurok⁵ ur uherrak! Zuri zor nahiko nizukeena, utzi ekaitzari zor izaten, zintzotasun handiagoa baitago itsaso eta haizeetan, zure bihotzean baino. Ez dut horrenbeste balio, zu nigandik ihesi itsaso zabalean hil zaitez (hala merezi duzun arren, zital horrek). Benetan gorroto sutsu eta iraunkorra darabilzu nire aurka, nitaz libratzearren bizitza galtzea axola ez bazaizu.

Baretuko dira haizeak, eta, olatuak lasaitutakoan, ibiliko da Triton itsasoetatik zaldi urdinen gainean. Zu ere haizearekin aldatuko ahal zara! Aldatuko zara, bai, haritza baino gogorragoa ez bazara. Zergatik zara fio itsasoaz, haren arriskuak ezagutuko ez bazenitu bezala, hamaika aldiz pairatu badituzu ere? Itsasoak beregana deiturik askatzen dituzu sokak, baina nahigabe asko dituzu bertan esperoan, halere.

Itsasoratzen direnei ez zaie komeni emandako hitzak ez betetzea. Leku horrek gogor zigortzen ditu traizioak, eta are gogorrago traizio horiek maitasunarekin loturik direnean, esaten delako Ziterako uretatik biluzik sortu zela Amodioen ama.⁶ Beldur naiz, behin ni galdua, galdu edo minduko ote dudan niri min ematen didan hori; edota nire arerio naufragor horrek itsasoko urak edango ote dituen. Bizi zaitez, arren; nahiago zaitut galbidean ikusi, hilda baino. Era horretan zu izango zara, eta hala dut nahiago, nire hondamenaren eragile.

³ Desira eta maitasun erotikoren jainkoa. Erromatar mitologian, Venus jainkosaren semetzat jotzen zen, hortaz, Eneasen anaia zen.

⁴ *Militia amoris* topikoa. Horren arabera, maitasuna borrokatu beharreko gudu edo bataila bat da.

⁵ Greziar mitologian, haizearen lau jainkoetako bat.

⁶ Aurretik aipatutako Venus jainkosari egiten dio erreferentzia, Amodioren amari, mitologiaren arabera, Greziako Zitera uhartean jaio baitzen.

Imajina ezazu zurrumbilo bizkor batek eramaten zaituela (ez dut nik auguriorik egin nahi), zer pentsatuko duzu? Etorriko zaizkizu burura orduan zure mihi gezurtiaren hitz faltsuak, eta iruzur frigiarren⁷ erruz Dido hiltzera behartua. Zure begien aitzinean agertuko da zure emaztea engainatuta, triste, odoltsu, ilea nahasita. «Merezi dut gertatzen zaidan guztia! Barkatu!» esango zenuke, eta pentsatuko zenuke erortzen diren tximistak zeuri bota dizkizutela.

Emaiozu tregua txiki bat ozeanoaren eta zure krudeltasunari: zuk bidai segurua egitea izango da zure luzamenduaren saria. Ez nitaz errukitu, errukitu Julio umeaz. Nahikoa da nire heriotzaren erantzule izatea. Zer kulpa du Askaniok?⁸ Zer egin dute Penate⁹ jainkoek, zoritxarra merezi izateko? Gero olatuek suntsitzeko salbatu al dituzte sutetik?¹⁰ Baina ez dituzu zurekin ekarri, eta ez duzu inoiz izan zure sorbaldetan ez zure aitaren pisua, ez zure aitzakia zital izan diren objektu sakratu horiena. Beti zabiltza gezurretan; zure mingainak ez du nirekin ikasi engainatzen, eta ez naiz iraindu duzun lehena. Non dago Julio ederraren ama? Bakarrik hil zen, bere senar krudelak abandonatuta. Horixe da zuk esan zenidana, eta nahikoa abisu izan zen! Erre nazazue! Merezi dut! Zigorra ez da izango nire erruduntasuna baino mingarriagoa.

Nire gogoak ez du zalantzarik jainkoak kontran dituzula. Lurretik eta itsasotik botatzen zaitu zazpigarren neguak; olatuek jaurtita jaso zintudan nik portu seguruan. Eta zure izena entzun eta berehala eman nizun nire erreinua. Zergatik ez ote nintzen horrekin konformatu; gu biok ohaide izatearen istorioa ez zatekeen zabalduko!

Zorigaiztokoa izan zen egun hura, bat-batean hasi zen euri urdinxkak aldapan beherako kobazulo haren babesera bultzatu gintuenekoa. Ahotsak entzun nituen; ninfak zoriona aldarrikatzen ari zitzaizkidala pentsatu nuen, baina Eumenideak¹¹ izan ziren nire zoritxarra iragarri zutenak.

Zuoi ari natzaizue: ohore iraindu, hautsitako ezkontza-promesa, [eta nire ospe ona, heriotzara arte mantendu ez dudana; eta zuoi, ene maneak,¹² eta Sikeoren espiritu eta

⁷ Frigiari hitzak Turkiako *Ida frigio* edo Ida mendiari egiten dio erreferentzia (Eneasen jaiolekua).

⁸ Julio edo Askanio Eneasek bere lehenengo emazte Kreusarekin izan zuen semea da.

⁹ Erromatar mitologian, etxea zaintzen zuten jainkoak dira Penateak.

¹⁰ Eneas eta bere seme Julio Troiako sutetik ihesi iritsi ziren Kartagora.

¹¹ Greziar mitologian, infernuko mendekuaren jainkosak.

¹² Maneak: Erromatarren artean, hilen arimak.

errautsok].¹³ Zuoi ari natzaizue, ai ene, lotsaz beterik; joan zaitezte mendeku bila! Sikeoren irudi bat dut, marmolezko santutegi txiki batean beneratzen dudana, ederki ehundutako girlandaz eta zinta zuriz estalia. Bere ahots ezagunak bertatik deitu zidala sentitu nuen lau aldiz: «Elisa, etorri», esan zuen soinu ahul batez: ez naiz luzatuko, banoa, banoa zuri zor zaizun emazte gisa. Hala ere, nire hutsegiteak eragiten didan lotsak gelditzen nau. Barka ezazu nire hutsa. Nire iruzurraren erantzulea pertsona duina da. Hark kentzen dio nire krimenari gaitza. Haren ama jainkosak eta adineko aitak, semearen karga errukiorrak, betirako nire alboan egongo zelako egiazko esperantza eskaini zidaten. Huts egin banuen, nire hutsak arrazoi zintzoak ditu; hark emandako hitza gehitzen baduzu, ez da izango damutzeko arrazoirik.

Nire aurreko bizitzaren patua dut lagun bizitza honetako azken uneetan, amaieran. Ene senarra jauregi honetan bertan erori zen bere odol gainean, eta neba dut krimen itsusi horren erantzule. Ni neu erbestera noa, jaioterria eta senarraren errautsak atzean utzita; bide arriskutsu baterantz abiatzen naiz, etsaia atzetik segika. Paraje ezezagunetara iritsi eta, itsasoari eta nebari ihes egitea lortu dudanean, erosi dudanean ur-bazter hau oparitu dizut, traidore alena, zuri. Hiri bat eraiki eta urrunetik ikusten diren harresiak ezarri dizkiot, gertuko inbidia sortzen dutenak. Gerrek mehatxatzen naute; gerrek setiatzen naute, kanpotarra eta emakumea naizenez gero. Apenas prestatu ditzaket armak eta hiriko ate berriak. Izan nituen milaka ezkongaiak nire aurka elkartu dira, haiekin ezkondu beharrean, gizagaixo bat nahiago izan nuelako. Zergatik ez nauzu Iarbas getuliarrantzat kateatuta ematen?¹⁴ Pozik eskainiko nizkioke zure krimen horri nire besoak. Neba bat ere badut, eta bere eskuineko esku lotsagabea nire odolaren gose da, nire senarrarenaz ziprizzindua izan ondoren.

Urrundu zaitez jainkoen irudi sakratuetatik, ukitzean profanatzen dituzu eta. Esku lotsagabeak ez dira jainkoei ohore egiteko egokiak. Zurea bazen sutatik salbatu zenituen haiek gurtzeko ardura, jainkoak damu dira salbatu izanaz.

Agian, gainera, gaizto horrek Dido haurdun utziko zenuen, eta baliteke zure parte bat nire sabelean ezkutatuta egotea. Ume dohakabe bat gehituko zaio amaren patuari, eta

¹³ Dido Sikeorekin ezkondu egin zen, Pigmalionek hil zuen arte. Horregatik, bere lehen senarra engainatu zuen Eneas maitatzean.

¹⁴ Iarbas Getuliako erregea da. Berak eman zion Didori Kartago eraikitzeko lurra; Didoz maiteminduta zegoenez, eta hark, Eneas hautatu zuelako haserre, hiria erasotu zuen.

horren heriotzaren ardura ere zurea izango da. Amarekin batera hilko da Juloren anaia, eta zigor berberak eramango gaitu biok.

«Jainko batek behartu nau joatera».¹⁵ Nahiko nuke jainko horrek hona etortzea galarazi, eta Kartagoko lurra teukroek inoiz ez zapaldu izana. Jainko hori al da haize gaiztoen bidez alde batetik bestera jaurtitzen zaituena? Itsasoan hainbat urte pasatzera behartzen zaituena? Zuk ere ez zenuke Pergamora¹⁶ itzultzeko nahia izan behar, hain zaila bada, Hektor¹⁷ bizi zen garaian bezain bikain izaten jarraituko balu ere.

Aberriko Simunte¹⁸ ibaiaren orde, Tiber ibaiaren urak dituzu bilatzen. Zalantzarik gabe, kanpotarra izango zara nahi duzun toki horretara iristen zarenean; agure bat izango zara nahi duzun lur horretara iristen zarenean, zugandik ezkututzen delako, eta zure ontziak ekiditen dituelako.

Jaso ezazu, hobe, herri hau ezkonsari gisa, zure ibilbide alderrai hori amaitzen duzunean; eta jaso itzazu nirekin eraman nituen Pigmalionen altxorak. Eraman zure Ilio¹⁹ Tiroko²⁰ hirira, zorte hobearekin, eta disfruta ezazu zentro sakratudun errege gisa. Zure arimari pizten bazaio borrokarako grina, edo Julok gerran lortutako garaipen baten beharra badu, bilatuko dizkiogu konkistatzeko etsaiak, ezer faltan izan ez dezan. Leku honek onartzen ditu bai bakearen arauak, bai armenak. Arren eskatzen dizut, zure amarengatik eta zure anaiaren geziengatik; jainkoengatik, ihesean bidelagun izan dituzun Dardaniako jainko sakratuengatik (zurekin ekarri zenituen horiek garaile izan daitezela, eta gerra zital hori izan dadila pairatuko duzun azken ezbeharra; Askanio hazi dadila zoriontsu, eta Ankises zaharraren hezurak lasai egon daitezela lurperatuta); erregutzen dizut: izan zaitetz baldintzarik gabe errenditu zaizun etxearen erruki.

Zein da nire krimena, zu maitatu izanaz gain? Ni ez naiz ez Ftiakoa,²¹ ez jatorriz Mizenas handikoa;²² ez da nire aita, ez nire senarra, zure kontra matxinatu. Ni zure

¹⁵ Jupiterrek, Merkurioren bidez, Eneasi agindu zion Kartago utzi eta Italiar erreinua sortzeko lekua bila zezan.

¹⁶ Troiako hiri nagusia.

¹⁷ Troiako gerrako garaian, Troiako printzea.

¹⁸ Troiako ibaia, gaur egun Doumbrek-Sou izena du.

¹⁹ Troia.

²⁰ Tiro, hiri feniziarra.

²¹ Ftia, Greziako antzinako lurraldea, bertako Mirmidoi tribuak Troiako gerran parte hartu zuen, Eneasen aurka.

²² Antzinako Greziako akropolia, Troiako gerran ibilitakoa.

emaztea izateaz lotsatzen bazara, esazu zure ostalari naizela, eta ez emazte. Zurea izatekotan, edozer izateko prest dago Dido.

Ondo ezagutzen ditut Afrikako kostak astintzen dituzten olatuak; sasoi jakin batean uzten dute pasatzen, bestetan ez. Haize leunak hala nahi duenean eskainiko dizkiozu zure lihoak haizeari; baina orain alga²³ arinek ez diote zure ontziari aurrera egiten utziko. Agindu niri eguraldia zaintzea; seguruago joango zara, eta hala nahi izanda ere ez dizut utziko han geratzen. Zure kideak ere atsedean eske dabilta, eta hondatutako ontzidiak, erdizka bakarrik konponduta, gibelamendua eskatzen du. Nik, nire faboreengatik eta etorkizunean zor izango dizkizudanengatik, gure ezkontzan jarri nuen esperantzagatik, denbora pixka bat erregutzen dizut; itsasoa eta maitasuna baretzen diren bitartean, joango naiz ausardiaz ikasten nola egin aurre nire tristurei.

Bestela, erabakita daukat nire bizitza etetea; ezin izango duzu denbora luzez izan krudela nirekin. Gustatuko litzaidake zuk irudikatzea hau idazten ari denaren aurpegia; idazten dudan bitartean, magalean dut Troiako ezpata. Malkoak nire masailetatik behera irristaka doaz, zorrotik ateratako ezpatara; laster malkoen ordezkari odolak zikinduko duen ezpatara. Zeinen ondo moldatzen den zure oparia nire patura! Nire hilobia ezer gutxirekin apaindu duzu.²⁴ Ez da hau nire bularra arma batek zaurituko duen lehen aldia; bertan badago dagoeneko maitasun krudel baten zauria.

Ana, ahizpa, Ana, ahizpa enea, nire kulparen konplize zara nahi izan gabe, zuk eskainiko dizkiezu hemendik gutxira azken opagaiak nire errautsei. Behin suak kiskaltzen nauenean, ez utzi nire hilobian idazpuru hau: «Sikeoren Elisa»; horren ordezkari, idatz ezazu beste hau tumuluko marmolean:

«Eneasek eman zituen hiltzeko arrazoia eta ezpata;
hiltzeko eskua, ordea, Didok berak jarri zuen».

²³ Itsas azalean algak agertzen zirenean, itsasoa haserre zegoela esan nahi zuen, eta hortaz ezin izaten zen nabigatu.

²⁴ Eneasek ezpata bakarrik oparitu dio.

VIII

HERMIONEK ORESTESI

[Nik, Hermionek, arestian anaia eta senar, orain anaia soilik dudanari hitz egiten diot; senar izena beste batek hartu du eta.]

Pirro,²⁵ Akilesen semea, aita bezain adoretsua da, eta gizakien eta jainkoen lege ororen aurka nauka giltzaperatuta. Saiatu nintzen ekiditen, ahal izan nuen neurrian, berak nitaz eta nire onespenez goza zezan. Hortik aurrera, nire emakume-eskuek ezin izan zuten gehiago. «Zer ari zara, Eazida?»²⁶ Badut mendekua hartuko duenik», esan nion. «Zure jabetzat duzun neskaxa honek badauka beste nagusi bat». Itsasoa baino gorrago, ile nahasietatik arrastaka eramanez ninduen bere teilpera, nik garrasika Orestesi deitzen nion bitartean. Hau baino ezer krudelagorik pairatuko nukeen, esklabo gisa, barbaroek Lazedemonia²⁷ hartu eta greziar emakumeen jabe egin izan balira? Bortiztasun txikiagoaz bortxatu zuen Akaia garaileak Andromaka,²⁸ danaoen²⁹ suak ondasun frigiarrak suntsitu zituenean.

Baina zuk, Orestes, nireganako maitasunik badaukazu, jaurti itzazu zure esku ausartak zure eskubideak defendatzera. Baten batek zure ukuilua iragan eta artaldea lapurtuko balizu, hartuko zenituzke armak; ezer egin gabe geldituko al zara zure emaztea lapurtu dizutenean? Segi zure aitagarrebaren eredu, hark jakin izan baitzuen kendutako emaztea berreskuratzen. Emakume bat arrazoi nahikoa izan zuen hark gerrarako; hala izan ez balitz, zure aitagarreba odolgabea bere jauregi hutsean lotan geratu izan balitz, nire ama Parisen emazte izango zen, lehenago izan zen moduan. Ez duzu mila ontziren eta mila bela hanpaturen beharrik, ez eta soldadu danao mordo baten beharrik ere. Etor zaitez zu zeu! Modu horretan ere erreklamatu behar ninduzun; senarrentzat ez baita desitxurosoa maite duen ohearen defentsan guda basatia eragitea. Zer balio dauka zuretzat Ateo, Peloperen semea, gu bion aitona izateak, eta nire senarra izango ez bazina, ahaide izango zinela jakiteak? Ene senarra, arren, lagundu zure emazteari; ene

²⁵ Neoptolemo ere deitua, Hermioneren senarra zen. Hasiera batean Hermionek Orestesekin ezkondu behar zuen, baina azkenean Neoptolemorekin ezkondu zuten.

²⁶ Eako heroi greziararen ondorengoak ziren; Eako Akilesen aitona zen.

²⁷ Esparta.

²⁸ Andromaka Troiako gerran alargundu zen, eta gerra bukatu eta akaiarrek irabaztean, Neoptolemoni sari gisa eman eta bere konkubina bihurtu behar izan zuen. Hermione Neoptolemorekin ezkondu zenean, jeloskor jarri zitzaion Andromakari.

²⁹ Troiarrei aurka egin zieten armada greziarrak.

lehengusua, lagundu lehengusinari. Bi titulu dituzu zure beharra betetzera bultzatzen zaituztenak.

Aitona Tindareok, bizipenen eta urteen eskarmentua zuenak, zuretzat nintzela erabaki zuen. Aitonak zuen bilobari buruzko erabakien ardura; baina aitak, horren berri izan gabe, ezkon-hitza emana zion Eazidari; lehentasuna izan beharko luke aitonak, bera izan baitzen hitza ematen lehena. Zurekin ezkondu, nire ezkontzak ez zion inori kalte egiten; Pirrorekin uztartuta, ordea, zeu kaltetzen zaitut. Nire aita Mendelao bihozbera izango da gure amodioarekin; berak ere amore eman baitzuen hegodun jainkoaren gezien aurrean. Onartuko dio suhiari hark bere buruari baimendu zion maitasuna; eta gure ama horrela maitatuak ere lagunduko digu. Zu zara niretzat gure amarentzat aita dena. Aspaldi Dardaniako kanpotarrak³⁰ izan zuen papera Pirrok dauka orain.

Aitaren balentriez etengabe harrotzen da bera, baina zuk ere badituzu kontatzeko zure aitaren egitandiak. Tantalidak³¹ denak gobernatzen zituen, baita Akiles bera ere; armadako kide zen Akiles, zure aita buruen artean burua. Halaber, birraitona duzu Pelope, eta Peloperen aita heren-aitona. Ondo kontatuta, Jupiterren ondoren bosgarrena zarela esan liteke. Adorerik ere ez zaizu falta. Hartu izan dituzu arma ezatseginak.³² Zer egin zenezakeen zuk, ordea? Aitak ezarri zizkizun. Gustatuko litzaidake lan hobe batean izan bazina ausarta (ez zenuen zuk aukeratu egiteko arrazoia, emanda etorri zitzaizun). Hala ere, egin zenuen, eta Egistoren eztarri irekiak zikindu zuen aitzinean zure aitaren odolak bete zuen gela berbera.

Eazidak etengabe errepikatzen du hori, laudorioak salaketa bihurtuz; baina halere nire begiradari eusten dio. Eztanda egiten dut, aurpegia eta gogoia sutzen zaizkit, eta barruko su horrek kiskaldutako bihotzak min ematen dit. Norbait ausartu al da Hermioneren aurrean Orestes gezurrez belzten? Indarra falta zait, eta ez daukat ezpata gogorrik niri laguntzeko. Behintzat, zilegi zait negar egitea; negarrez uxatzen dut haserrea; eta malkoak nire magaletik igarotzen dira, ibai baten moduan. Malko horiek dira etenik gabe dudak bakarra, eta etenik gabe isurtzen ditut. Nire masail zaindu gabeak beti daude bustita.

³⁰ Paris.

³¹ Agamemnon, Orestesen aita.

³² Orestesen ama Klitemnestrak eta bere maitale Egistok hil zuten Agamemnon, Orestesen aita eta Klitemnestraren senarra. Hilketari hori mendekatzeko, Orestesek Egisto eta Klitemnestra hil zituen.

Hau da nire familiaren patua, gure garaira arte harat-honat ibili dena: Tantaloren oinordeko emeak harrapakeriaren biktima egokia gara. Ez dut kontatuko ibaiko zisnearen iruzurra, eta ez naiz kexatuko haren lumen artean Jupiter ezkutatu izanaz.³³ Istmoak itsasoa bitan zatitzen duen lekutik gidatu zuten Hipodamia gurpil kanpotarrek;³⁴ Amiklaseko Kastor eta Poluxi hiri mopsopiarrean³⁵ itzuli zieten haien arreba,³⁶ Tindaroren alaba. Tindaroren alaba itsasoz beste aldeko Idako ostalariak bahitu zuenean, bera salbatzeko hartu zituen armak Argoseko armadak. Ozta-ozta bada ere, oroitzen dut; dena doluak betetzen zuen, doluak eta beldur artatsuak. Negarrez zegoen aitona,³⁷ negarrez ahizpa,³⁸ negarrez neba bikiak,³⁹ otoitzean zebilen Leda, otoitzean jainkoei eta bere Jupiterri. Nik neuk ere egiten nuen garrasi, ile oraindik motzetatik erauzi arte tiraka: «Ni gabe egiten duzu alde, ama? Ni gabe?». Hain zuzen ere, senarra kanpoan zuen amak.⁴⁰ Peloperen ondorengoa naizelako zalantzarik ez egoteko, Neoptolemoren harrapakin izatea egokitu zait niri. Oxala Peleoren semeak Apoloren arkuia saihestu ahal izan balu,⁴¹ aitak kondenatuko lituzke ziur semearen ekintza kriminalak; bere garaian ez zuen gustuko izan Akilesek senar alargun batek bere emazte bahituagatik negartzea,⁴² eta orain ere ez litzaioke gustatuko.

Zer bidegabekeria egin dut nik jainkoen haserrea pizteko? Ai ene, zein astro kaltegarritz izango naiz kexu?

Txikia nintzela, ama gabe egon nintzen; aitak armetan ziharduen eta, nahiz eta biak zeuden bizirik, bi aldeetatik umezurtz nengoen. Ez nizekizun zuri esan, ama, umetako lehen hitz gozo eta motelak. Ez nuen zure lepoa inguratu nire besotxo motzekin, eta ez

³³ «Leda eta zisnea» greziar mitologiako motibo bat da; haren arabera, Zeus (erromatar mitologian Jupiter) Olinpotik jaitsi zen lurrera, zisne baten forma hartuz, eta Leda limurtu edo bortxatu zuen. Istorioak dioenez, gaur hartan bertan Leda bere senarrarekin oheratu zen, eta ondorioz bi pare seme izan zituen: bi Zeusenak (Helena eta Polux, hilezkorak) eta bi senar Tindarorenak (Klitemnestra eta Kastor, hilkorak). Leda Hermioneren arbasoa da.

³⁴ Hipodamia (hau ere Hermioneren arbasoa) Pelopek bahitu zuen Poseidonek emandako gurdi batean. Pelope Asiakoa zen, Lidiakoa, horregatik dio “gurpil kanpotarrek” eraman zutela.

³⁵ Atenasen.

³⁶ Troiako Helena, Hermioneren ama. Paris printzeak Helena bahitu zuenean hasi zen Troiako Gerra, Espartako errege Melenao eta Helenaren senarrak emaztea salbatzeari ekin zionean.

³⁷ Tindaro.

³⁸ Febe.

³⁹ Kastor eta Polux.

⁴⁰ Menelao Kretara joan zen bidaian, bere emaztea eta Paris batera utzita.

⁴¹ Peleoren seme Akiles Apolok hil zuen.

⁴² Akiles matxinatu egin zen Agamemnonek bere esklabo zen Briseida kendu zionean.

nintzen izan zure magalean eseri zen zama atsegina. Ni zaintzea ez zen izan zure ardura, eta behin nire senarrari hitz emanda, ez nintzen ezkon-ohetan amak apainduta sartu.

Zu itzuli eta agurtzera atera nintzenean (egia esango dut), zure aurpegia ez zen niretzat ezaguna. Hala ere, zure edertasunagatik jakin nuen zu zinela Helena. Zuk, ordea, zure alaba zein zen galdetzen zenuen.

Gauza bakarra izan dut ona, nire senar Orestes; eta bera ere, borrokara ez badoa, kenduko didate. Pirrok nauka gatibu, nire aita garaile azaltzen den bitartean: hau da Troia suntsitzeak ekarri didan oparia.

Hala eta guztiz ere, Titanek⁴³ zaldi distiratsuak astintzen dituenean, atsegin hartzen dut errukarri honek, azkenik zorigaitzaz libre naizelako. Gauak nire logelan garrasi eta kexu artean giltzaperatzen nauenean, eta ohe tristean botatzen nauenean, loaz gozatu ordez, begiak malkoz betetzen zaizkit, eta ahal dudan artean senarrarengandik ihes egiten dut etsaia bailitzan.

Maiz, ezbehar guztien artean, nahasi egiten naiz, eta non nagoen ahaztuta, konturatu gabe, nire eskuaz Skirosekoaren⁴⁴ gorputza ukitzen dut; baina egindakoz konturatzen naizenean, eskua kendu eta zikin sentitzen dut. Askotan, Neoptolemoren izena beharrea, Orestesena esaten dut, eta gustuko izaten dut nire ahoaren hutsegite hori, zerbaiten seinale ona delakoan.

Nire zorigabeko leinuarengatik; itsasoak, lurrak eta bere erreinuak astintzen dituen nire arrazaren aitarengatik; zure aitaren (nire osabaren) hezurrengatik (zuk balentriaz mendekatzeari esker tumulu azpian atsedean hartu behar dutenak); zin egiten dut behar baino lehenago hil eta gazte desagertuko naizela, edo ni, Tantaloren oinordekoa naizena, Tantalidaren emazte izango naizela.

⁴³ Eguzkia.

⁴⁴ Pirro Skiros uhartean jaio zen.

IX

DEIANIRAK HERKULESI

[Bihotz baten eskutitz gogaidea naiz, emazteak Altzidari bidalia, Deianira zure emaztea baldin bada.]

Pozten naiz Ekalia izena gure tituluen zerrendara gehitu izanaz, baina kexu naiz garailea emakume garaituaren mende erori delako.

Bat-batean iritsi da Pelasgoko hirietarara berri lotsagarri bat, zure ekintzek gezurtatu beharko dutena: ez Junonek eta ez lanen segida luzeak menderatzea lortu ez duen horri, Iolek⁴⁵ jarri omen dio uztarria. Gustuko izango da hori, bai Euristeorentzat, bai Trumoi-jolearen arrearentzat;⁴⁶ azken hori, amaorde denez gero, izugarri poztuko da akats horrek zure bizitzan orbana uzteaz. Ez bedi gustuko izan, ordea, zu sortzeko (hain zara handia!) gau oso bat nahikoa izan ez zuen harentzat (hala izan zela sinesten badugu).⁴⁷ Junonek baino, Venusek eman dizu zuri min gehiago. Lehenak umiliatuz goratu zintuen, bigarrenak bere oin xumepean dauka zure lepoa.

Egiozu so zure indar babesleak baketu duen munduari: Nereoren⁴⁸ ur urdinek alde guztietatik besarkatzen dute bertako lur zabala. Zuri zor zaizu munduko bakea, zuri itsasoko segurtasuna; merezimenduz bete zenituen eguzkiaren bi egoitzak;⁴⁹ eutsi behar zaituen zerua zeuk eutsi zenuen aurretik; Atlasek izarrak bermatu zituen, Herkules azpian jarrita.

Zure aurreko balentrien buruan lotsaizun tamalgarri hori, estupro laidogarri hori eginik, zer beste lortu duzu, zure izen ona zalantzan jartzeaz gain? Ez al zinen zu, umetan, esku hutsekin bi suge bata bestearen kontra estutu eta ito zituena? Sehaskan dagoeneko Jupiterren duin zena? Bukatu duzuna baino hobeto hasi zinen. Ezberdinak dira gizon hau eta haur hura. Ez mila piztiak, ez haren etsai zen Esteneloren semeak, ez Junok garaitu ez zuten hori, Amodiok garaitu du azkenean.

⁴⁵ Iole Ekaliako errege Euritoren alaba zen. Herkules harekin maiteminduta zegoen, eta Ekalia erasotu zuenean, Iole berarekin eraman zuen; horrek Deianira jeloskor jartzea eragin zuen.

⁴⁶ Jupiterren arreba Junon da.

⁴⁷ Jupiter Alkmenarekin egon zenean, denbora gelditu zen, eta gau horrek bi edo hiru gau iraun zituen.

⁴⁸ Itsasoa.

⁴⁹ Bi hemisferioak.

Halere, diotenez, ni ondo ezkontuta nago, Herkulesen emaztea omen naizelako, nire aitagarreba zaldi bizkorren gainean trumoa jotzen duen hori delako. Nola tamaina ezberdineko txahalak goldera gaizki moldatzen diren, hala zanpatzen du senar ospetsuak emazte apalagoa. Ez da ohorea, baizik eta zama daraman hori minduko duen itxura hutsa; ondo ezkontuta egon nahi baduzu, ezkondu zaitez pareko batekin.

Nire senarra beti dago nigandik urrun, eta gehiago da ostalari senar baino, etengabe munstro eta pizti izugarrien atzetik baitabil. Ni, berriz, etxean nago bakarrik, boto jainkotiarrekin lanpetuta, etsai gorrotagarriren batek senarra hilko duen beldurrez. Suge, basurde, lehoi goseti, eta kosk egiteko prest dauden hiru buruko zakurren artean nabil aztoraturik, egonezinez. Asaldaturik nago pentsatzean biktimen erraietan, loaren mamu hutsaletan eta gau misteriotsuak ekartzen dituen seinaleetan. Zorigaitzeko honek zurrumurru lausoak zelatatzen ditu, eta, orduan, nire beldurra esperantza ez-segurua bihurtzen da, eta esperantza hori berriz ere beldur.

Zure ama kanpoan da,⁵⁰ jainko boteretsuari atsegin eman izanaz damututa. Ez dago hemen zure aita Anfitrion,⁵¹ ezta Hilo⁵² txikia ere. Hortaz, nik jasan beharko ditut bai Euristeo, Junon zitalaren maltzurkerien epailea, bai Junonen beraren haserre amaigabea. Hori guztia nahikoa ez balitz, kanpotarrekin maitasun kontuak gehitu dizkiozu zuk; edonork izan ditzake zuregandik seme-alabak.

Ez dut Augeri buruz aritu nahi, haran Partenotan bortxatu zenuen hartaz; ez dut ezer esango, Ormenoren ninfa,⁵³ zure oinordekotzari buruz. Ez duzu lotsatu beharko Tetrantereneko ahizpez, zeinetatik bati ere ez zenion muzin egin.

Ezkontza-nahasle bakarra aipatuko dut, duela gutxiko hobena; bere erruz bihurtu bainaiz Lamo⁵⁴ lidiarraren amaorde.

Hamaika aldiz lur berberak zeharkatu dituen Meandrok, zeinaren ur nekatuek askotan egiten duten atzera, lepokoak eskegita ikusi ditu Herkulesen lepoan, zeinarentzat zerua karga arina izan baitzen. Ez al zizun lotsarik eman zure beso ausartak urrez

⁵⁰ Alkmena Tirinton zegoen.

⁵¹ Anfitrion Alkmenaren senarra zen, baina ez zen benetan Herkulesen aita. Gau batez, Anfitrion kanpoan zela, Jupiter jainkoak bere forma hartu zuen, eta Alkmenarekin oheratu zen. Gerora, Anfitrion bera ere oheratu zen ematearekin; hortaz, bi haur jaio ziren: Herkules (Jupiterrena) eta Ifikles (Anfitrionena).

⁵² Herkules eta Deianiraren semea, emazteak aitaren bila bidali zuenez, kanpoan zegoen.

⁵³ Astidamia; bere aitak Herkulesi ez zion utzi Astidamiarekin ezkontzen; ondorioz, Herkulesek bahitu, bortxatu, eta haur bat izan zuten: Ktesipo.

⁵⁴ Herkulesek Lidiako erregina Onfalerekin izandako semea.

estaltzeak, eta zure gihar sendoak harribitxiz apaintzeak?⁵⁵ Beso horiek hil zuten Nemeako munstroa, zeinaren larrua orain ezker sorbalda daramazun!

Ausartu zinen zure ile-latza mitraz⁵⁶ apaintzen; baina hobeto egokitzen zaio Herkulesen ileari makal zuria.⁵⁷ Ez al zara lotsatzen gerriko meoniar bat jantzi eta ohorea galdu izanaz, neskatxa lizun baten moduan? Ez al zitzaizun burura etorri behorrak giza haragiaz elikatu zituen Diomedes basatia?

Busurisek era horretan jantzita ikusi izan bazintu, dudarik gabe lotsatuko zatekeen zutaz, bera garaitu zuen garaileaz. Anteok erauz ditzala apaindura horiek zure idunetik, emagizon batek menderatua izateak eragingo liokeen lotsa jasan aurretik.

Esaten dutenez, otarrea erabili duzu eskuartean joniar neskatxen artean, eta zure ugazabandrearen mehatxuen beldur izan zara. Altzida, ez al diozu uko egiten hainbeste lanetan garaile izan den zure esku hori saski zaindu horietan jartzeari? Hatz lodi sendo horrekin harrietatik tira egiten duzu, eta zure andre ederrari itzultzen diozu hark emandako haril kantitate berbera? Zenbat aldiz apurtu dituzte zure esku indartsuegiek ardatzak, harizpiak hatz zakarrekin bihurtzen zenituela! Esaten denez, zure maitalearen zigorren aurrean dardarka izan zara, ugazabandrearen oinetan, bere mehatxuen beldurrez.

Egite miresgarriak kontatzen zenituen, ospea eman zizutenak; baita isildu beharreko balentriak ere: adibidez, suge erraldoi haien isatsa nola kiribildu zen zure haur eskuan, iduna estutu zenienean; edo nola erori zen Tegeako basurdea⁵⁸ altzifrez beteriko Erimantoan, haren pisuaz lurra zaurituz. Ez dituzu ezkututzen traziar Penateen ondoan zuk eskegitako buruak,⁵⁹ ez giza haragia janez gizendutako behorrak; ezta hiru Gerionen mirari hirukoitza ere, Iberiako behien jabearena, hirutan bat bakarra baitzen;⁶⁰ Zerbero ere ez duzu isilpean gorde, enbor bakarretik hiru zakurretan zatitzen zen hura, suge mehatxagarriz osaturiko adats nahasia duena; suge horietako bakoitza birsortu egiten zen zauri emankorretik, bere kaltean onura aurkituta; hitz egin zenuen beste hartaz ere, zeinaren eztarria, ezkerreko besoaren eta ezkerreko saihtsen artean estutu zenuenean,

⁵⁵ Iritoren seme Eufito hil zuenean, Herkules Onfaleren esklabo bihurtu zen. Hiru urtez, erregina zerbitzatu behar izan zuen, emakume baten gisa jantzi eta apainduta.

⁵⁶ Emakume asiarrek jantzi ohi duten ileko apaingarria.

⁵⁷ Hura jantzita itzuli baitzen Infernuetatik.

⁵⁸ Erimantoko basurdea greziar mitologiako basurde erraldoia da. Hau ehizatzea Heraklesi jarritako hamabi lanetako bat izan zen.

⁵⁹ Penatek ate esan nahi du. Diomedesek bere atean eskegitzen zituen hildako ostalarien buruak.

⁶⁰ Gerion.

fardel astun baten gisan zintzilik geratu zen;⁶¹ aritu izan zara baita ere Tesaliako gailurretatik (haien oinez eta bi zatiko formaz oker fidaturik zeuden han) kanporatu zenituen zaldiez.⁶² Gai al zara hori guztia kontatzeko, sidondar mantu bat duzunean soinean? Ez al du jantzi horrek zure mihia trabatzen?

Dardaniar ninfak⁶³ zure armekin apaindu du bere burua, eta garaikur bikainak⁶⁴ kendu dizkio bere senar gatibuari. Zoaz orain, goraipa ezazu zure ausardia, eta konta itzazu zure balentria guztiak. Bera izan da gizona, eskubide osoz, zu ez zarela izan. Bere azpitik zaude zu, gizon handi hori, balio gehiago baitu zu garaitzeak, zuk garaitu dituzun horiek guztiek baino. Harentzat da orain zure egitandi guztien neurria. Laga laudorioak: zure neska-laguna da orain zure ospearen oinordekoa. Hori lotsa! Lehoi ilelatz horren saihetsetatik erauzitako larru zakarrak estali du Onfaleren saihetsalde samurra. Engainatuta zaude eta ez dakizu ezer; ez dira lehoiaren hondakinak, zureak baizik! Zuk lehoia garaitu zenuen, baina emakume horrek zeu garaitu zaitu. Emakume bat da, iruteko ardatza kostata heldu dezakeena; baina heldu ditu Lernako pozoiaz belztutako geziak, eskutan hartu du munstroak akabatu zituen haga, eta ispiluan ikusi ditu bere senarraren armak.

Hori guztia entzunda neukan; posible nuen zurrumurruei jaramonik ez egitea; gainera, mina motel iristen da belarrietatik bihotzera. Orain, baina, nire begien aurrean ikusi behar dut zure ohaide kanpotar hau,⁶⁵ eta ezinezkoa zait sufritzen ari naizena ezkutatzea. Ez didazu uzten bera baztertzen; nire begiek ikusi nahi ez duten gatibua, sutsuki gorroto dudana, lasai asko ibiltzen da hiri erditik pasieran. Eta ez pentsa ohiko gatibuen antzera dabilenik, ilea nahasita, aurpegia estalita, bere zoria kontatzen; ez; handiustez nabarmendurik ibiltzen da, urrezko apaingarriekin dotore, zu Frigian jantzen zinen modu berean dotoretua. Harrotasunez begiratzen dio herriari, Herkules garaitua izan balitz bezala; pentsa zenezake, akaso, bere aita oraindik bizirik dagoela eta Ekaliak oraindik zutik jarraitzen duela.

Baliteke zuk Deianira arbuiatu eta hark ohaide titulua uztea; bera izango da, orduan, zure emaztea, eta ezkontza belzgarri batek lotuko ditu zuen gorputzak: Euritoren

⁶¹ Anteo greziar mitologiako erraldoi bat zen, Herkulesek hil zuena.

⁶² Zentauroak.

⁶³ Onfale.

⁶⁴ Herkulesen haga, arku eta beti gainean eramaten zuen lehoiaren azala.

⁶⁵ Iole da. Herkulesek bera joan aurretik bidali zuen emakumea Trakisera.

alaba Iolereña, eta Altzida zoroarena. Oroitzapen honekin burua joaten zait, hotzikara batek nire soin atal guztiak zeharkatzen ditu, eta indar gabe uzten dut eskua nire magalean.

Ni ere, beste asko bezala, maitatu ninduzun; baina lotsaizunik gabe. Ez zaitez lotsatu, bitan izan nintzen zuretzako borrokarako arrazoi. Akelooak negarrez jaso zuen bere adarra⁶⁶ ur-bazter bustian, eta zauritako lokiak ur zingiratsuan murgildu. Neso, erdi gizona, Eveno ibai hilgarrian erori eta bere zaldi-odolak urak pozoitu zituen.

Baina, zergatik ari naiz ni hau guztia kontatzen? Hau idazten ari naizela, zurrumurru bat iritsi zait. Diotenez, nire senarra nire tunikaren pozoiatatik hiltzen ari da. Ai ene! Zer egin dut? Zertara eraman nau zoramenak maitale hau? Deianira lotsagabe hori, zergatik zaude hiltzeko zalantzatan?

Pentsatzen al duzu senarra eta mendiaren gailurrean hil eta gero zuk bizirik jarraitzea, zu izanda krimen horren eragilea? Oraindik ere Herkulesen emazte titulua merezi izateko zer edo zer egin behar badut, nire heriotza izango da ezkontzaren bahia. Zuk ere, Meleagro, ikusiko nauzu naizen arreba gisa. Deianira lotsagabe hori, zergatik zaude hiltzeko zalantzatan?

Ai, familia madarikatua! Goratutako tronuan esertzen da Agrio.⁶⁷ Eneo abandonatua zahartza bakartiak jo du. Nire anaia Tindeo paraje ezezagunetan erbesteratuta dago. Beste anaia⁶⁸ su hilgarrian bizirik mantendu zen. Amak erraiak puñal batekin zulatu zituen. Deianira lotsagabe hori, zergatik zaude hiltzeko zalantzatan?

Gauza bakarra eskatzen dut, ezkontzaren lege sakratuen izenean: inork ez dezala uste izan nik zure bizitzari segada jarri diodanik. Nesori geziak bihotz sutua zeharkatu zionean, hau esan zuen: «Odol honek amodioaren indarra dauka». Eta Nesoren pozoiaz bustitako tunika bidali dizut nik. Deianira lotsagabe hori, zergatik zaude hiltzeko zalantzatan? Agur, aita zaharra; eta agur Gorge, ene ahizpa; eta zu, aberria, eta aberria

⁶⁶ Akeloo ibaia Deianirarekin maiteminduta zegoen, eta Herkulesek bere kontra borrokatu behar izan zuen. Horretarako, ibaiak hainbat forma hartu zituen, eta zezen forma zuela Herkulesek adar bat apurtu eta horrela garaitu zuen.

⁶⁷ Deianiraren osaba. Deianiraren aita Eneo Etoliatik kanporatu zutenean, haren anaiak erreinua okupatu zuen.

⁶⁸ Meleagro, berriz ere.

kendu dizuten anaia; eta zu, gaurko argia, nire begiek ikusiko duten azkena; eta senarra
(o, ahal izango bazenu...), eta zu, Hilo txikia, agur.

X

ARIADNAK TESEORI

[Piztien esku utzita abandonatu zenuen horrek bizirik dirau, Teseo maltzurra. Prest al zaude hori zintzotasunez onartzeko?]

Zu baino errukiorrago izan dira nirekin piztiak; inoren eskutan ez nago zureetan baino okerrago.

Eskutitz hau, Teseo, zure ontziak ni gabe joan ziren leku beretik idazten dizut. Hemen, nire ametsak bidegabeki traizio egin zidan, eta baita zuk ere, nire amets horri segada jarri zenionean.⁶⁹

Izotz zuria lurra estaltzen hasten den garaia zen, eta txoriek hosto artean babesturik txiokatzen zuten. Erabat esnatu gabe, amets artean makalduta, eskuak luzatu nituen Teseo besarkatzeko asmoz, erdi lo. Ez zegoen inor. Eskuak kendu eta berriz ere ohea ukitzen ibili nintzen. Ez zegoen inor. Beldurrak bat-batean desagerrarazi zidan logura; izututa altxa nintzen; nire gorputza ohe hutsetik atera nuen; eskuak bularrean kolpeka hasi, eta loak nahasitako ileak tiraka erauzten hasi nintzen. Ilargia zegoen. Itsasertza ez den zerbait ikus nezakeen begiratu nuen, baina nire begien aurrean ez zegoen besterik. Alde batetik bestera ibili nintzen korrika; hondar lodiak nire neskatxa-oinak moteltzen zituen. Kostalde osotik garrasika ibili nintzen: «Teseo!», baina arroka makurren oihartzunak bakarrik erantzun zidan. Nik deitu nizun adina aldiz deitu zizun leku hark; zorigabe honi bere laguntza eskaini nahiko zion.

Mendi bat zegoen; zuhaixka gutxi batzuk zituen tontorrean. Olatu zakarrek higatutako harkaitz bat zegoen han zintzilik. Igo egin nintzen, nire barrutik ateratako indarraz, bertatik itsaso zabala urruneraino ikusteko. Leku hartatik ikusi izan ahal nituen Noto oldartsuak zabaldu zizkizun belak. Edo ikusi nituen, edo, agian, ikusi nituela pentsatzean, izotza baino hotzago geratu nintzen, erdi hilda.

Minak ez dit uzten denbora luzez ilauntzen; minak suspertzen nau, suspertzen nau eta garrasika deitzen diot Teseori. «Nora zoaz ihesi?», oihukatzen diot, «Itzul zaitez, Teseo maltzurra; biratu ontzia, bat falta du eta».

⁶⁹ Teseok lo zegoela abandonatu zuen Ariadna.

Hori esan nuen. Nire ahotsak falta zuena nire aieneek betetzen zuten. Kolpeak hitzekin nahastu ziren. Eskuekin zeinuak egiten nituen, badaezpada ere; agian, entzun ez arren, ikusiko ninduzun. Adaxka luze bati oihal zuri bat jarri nion, nitaz ahaztu zinetela ohartarazteko.

Begien bistatik galdu zintudanean, negarrez hasi nintzen; ordura arte, minak eutsi zien malkoei. Zer egin zezaketen nire begiek, negar egitea ez bada, behin zure belak ezin ikusi zituztenean?

Halako batean alderrai ibili naiz, bakarrik, ilea nahastuta, Oiggio jainkoak sorgindutako bakante baten moduan;⁷⁰ hurrengoan, izoztuta eseri naiz, itsasoari begira, arroka baten gainean, eta azpian nuen harria bezain harri izan naiz.

Askotan itzultzen naiz biok hartu gintuen ohera, zeinak ez baikaitu berriro elkarrekin izango; eta noizbait zure gorputz-atalek berotu zituzten izarak ukitzen ditut, eta zure aztarnak, zu ukitu ezinean ukitu dezakedan bakarra. Horien gainean erortzen naiz, ohea nire malko-jarioarekin bustiz, eta oihu egiten dut: «Biok estutu zintugun, eta ekar gaitzazu biok bueltan. Biok etorri ginen hona; zergatik ez genuen biok batera alde egin? Ohantze gaiztoa, non dago nire zatirik handiena?».

Zer egin dezaket? Nora joan naiteke bakarrik? Uharte honetan ez dago zibilizaziorik; ez dago ez gizaki, ez idiren arrastorik. Lurra itsasoak inguratzen du alde guztietatik. Ez dago itsasgizonik. Ez da poparik azalduko bide arriskutsu hauetan.

Demagun bidaideak lortzen ditudala, haize egokiak, ontzi bat. Nora joango naiz? Nire aitaren lurretan ez naiz ongietorria izango.⁷¹ Ontzi alai batean itsaso barean lasai nabigatu arren, Eolok haizeak leundu arren, erbesteratu bat izango naiz.

Ez zaitut berriro ikusiko, Kreta, ehun hiritan banatua,⁷² Jupiter haurrak ondo ezagutu zuen lurra. Aitari, eta hark gobernatutako lurrari (biak izen maiteak) traizio egin nien, labirinto korapilatsu hartan hil ez zintezan, garaile, gidatuko zintuen haria eman nizunean. Zuk esan zenidan: «Zin degizut, arrisku hauen guztiengatik, gu biotako bat

⁷⁰ Bakanteak: Bako jainko greziarra gurtzen zuten emakumeak. Bakoren ama Semele Kadmoren alaba zen, Tebaseko errege. Ogiok Tebas hiria sortu zuen.

⁷¹ Kretan ez da ongietorria, Teseo lagundu izanagatik.

⁷² Kreta ezaguna izan zen ehun hiritan banatua egoteagatik.

bizirik dagoen artean, nirea izango zarela». Bizirik gaude, Teseo, eta ez naiz zurea; senarraren engainuak lurperatutako emaztea bizirik dagoela esan badaiteke behintzat.

Ni ere hil behar ninduzun, gaizto horrek, nire anaia hiltzeko erabili zenuen haga berberaz.⁷³ Ni hilda, beteta geratuko zatekeen egin zenidan promesa. Orain, jasan behar dudana gain, emakume abandonatu batek sufritu dezakeen guztia etortzen zait gogora.

Hiltzeko mila modu bururatzen zaizkit; eta heriotzaren oinazea baino larriagoa da haren zain egotea. Irudikatzen dut momentu batetik bestera agertuko direla otso gosetiak, nire erraiak haginka zatitzeko prest. Baliteke lur honetan lehoi horixkak haztea; egongo ote dira tigre eme basatiak? Diotenez, itsasotik foka erraldoiak ateratzen dira! Zeinek ekidingo du ezpatek nire saiheitsaldea zeharkatzea? Nahi ez dudana gauza bakarra da esklabo bihurtu eta kate gogor batez lotuta egotea, eta nire esklabo-eskuaz artile pilo handia irun behar izatea, nik, aita Minos dudana honek, ama Feboren alaba, eta, inoiz ahazten ez dudana, zure emaztegai izan nintzen honek.

Itsasoa, lurra eta itsabazter zabala ikusten badituz, arrisku handiek mehatxatzen naute lurrean, baita uretan ere; zerua geratzen da, eta jainkoen maltzurkeriaren beldur naiz. Abandonatuta nago, pizti bizkorren harrapakin eta otordu bihurturik. Hemen gizonik ari eta bizi baldin bada, haietaz ere ez naiz fio; ikasi dut, zaurituta, gizon arrotzen mesfidati izaten.

Androgeo biziko balitz! Zuk, Zekroperen hiriak,⁷⁴ ez zenituzkeen zure egite adeigabeak hilketekin garbituko; eta zure eskuak, Teseo, ez zukeen lantza begitsuaz sakrifikatuko erdi gizon, erdi zezen hori; eta nik ez nizukeen emango itzultzeko bidea erakutsiko zizun haria, eskuekin etengabe zeureganantz jasotzen zenuena.

Ez naiz harritzen zu garaile izateaz, ezta piztiak Kretako lurra tindatzeaz ere. Haren adarrak ezin zituen zure burdinazko erraiak zeharkatu. Zeure burua babestu ez arren, zure bularrak babesten zintuen. Silexa edonora daramazula, eta diamantea edonora daramazula, bertan izango da Teseo, silexa garaituko duena.

Amets krudelok, zergatik eduki ninduzuen geldirik? Betirako gau amaigabeen hondoratua izan beharko nukeen. Zuek ere bai, haize krudel eta egokiegiak, eta nire

⁷³ Minotauroa.

⁷⁴ Atenas da Zekropek sorturiko hiria.

malkoak eragiteko prest zeundeten haize leunak; ni eta ene anaia hil gaituen eskuin krudela, eta baita zu ere, ezkon-hitza, hitz hutsala, eskatzean eman zenidana. Nire kontra batu dira loa, haizea eta ezkon-hitza; hirurek neskaxa bakarrari egin diote traizio.

Hala, nik ez ditut hiltzean amaren malkoak ikusiko, inork ez ditu itxiko bere behatzez nire begiak; nire espiritu zorigabeak aura arrotzen artean ibili beharko du,⁷⁵ eta nire gorputz-atal atonduak ez ditu lagun baten eskuak laztanduko. Itsas hegaztiak nire hezur lurperatu gabeen gainean jarriko dira. Hau al da nire zerbitzuek merezi duten hilobia?

Zekroperen portura iritsiko zara, eta zure herrian egingo dizute ongietorria; zutik zaudenean, tente, inguratzen zaituen jendetzaren aurrean, eta xehetasun osoz kontaktu dituzunean hala zezen-gizonaren heriotza nola bide arriskutsuek moztutako harrizko etxea, konta ezazu, halaber, lur bakarti batean abandonatu nauzula. Ezin dut zure egiteetatik ezabatua izan! Egeo ez da zure aita, ez zara Piteoren Etraren semea; arrokak eta itsasoa dira zure gurasoak.

Oxala jainkoek eragingo balute zuk ni popa gainetik ikustea; nire itxura atsekabetuak zure aurpegia hunkituko zukeen. Orain, ez begiekin, buruarekin baizik, horrekin ahal duzu eta, begira iezadazu, olatu ibildaunek etengabe jotzen duten haitz batean iltzatuta; begira itzazu nire ile eroriak, doluaren seinale, eta nire tunika, malko lodiz busti-busti eginda, euriaz bezalatsu. Nire gorputza ipar-haizeak mugitutako galburuak bezala ikaratzen da, eta nire letra balantzaka dabil, esku dardarti batek marraztua.

Ez natzaizu ari erreguka nire merezimenduengatik, horiek kalte egin baitzidaten. Nik egindakoak ez beza saririk merezi, baina ezta zigorrik ere. Ni ez banaiz zure salbazioaren sorburua, zuk ez duzu zertan izan nire heriotzaren sorburu. Zorigabe honek, zugana luzatzen ditut, itsaso zabalean zehar, nire esku hauek, nire bularralde tristeak kolpatu dutelako mindurik; eta abaildurik erakusten dizkizut geratu diren ile apurrak. Zuk egindakoak eragiten dituen malkoengatik erregutzen dizut: biratu ezazu zure itsasontzia, Teseo; eta haizea aldatzean, itzul zaitetz. Ordurako hil banaiz, behintzat zeuk eramango dituzu nire hezurak.

⁷⁵ Uste zuten lurperatu gabeko goruen espirituak ezingo zutela Infernuetan sartu.

XI

KANAZEK MAKAREORI

[Eoloren alabak⁷⁶ bidaltzen dizkio Eoloren semeari osasuna (berak ez daukana) eta orain ezpata heltzen duen eskuak idatzi dituen hitzak.]

Orban ilunek hitz batzuk ulertzea eragozten badizute, eskutitza zure maitalearen odolak zikindu duelako izango da. Eskuin eskuan daukat idazkanabera; ezkerrean ezpata, zorrotik aterata; eta magalean daukat, zabaldua, pergaminoa. Hori da Eoloren alabak duen itxura anaiari idazten dion bitartean. Uste dut horrela nire aita zorrotzaren gustuko izan naitekeela. Nahiko nuke bera hemen egongo balitz, nire heriotzaren ikusle, eta obra bere sortzailearen begien aurrean bukatuko balitz. Krudela denez gero, eta bere Euroak⁷⁷ baino askoz ere mehatxagarriagoa, nire zauriak masail lehorrez begietsiko lituzke. Egiaz, haize basatiekin bizitzea ez da gutxi; bere jendearen naturara moldatu da. Noto, Zefiro eta Akilon sitoniarraren nagusia da, eta zure hegoena, Euro suntsitzailea. Haizeen nagusia da (ai ene!), ez haren haserre harrotuarena, eta bizio gehiago ditu erreinu baino.

Zertarako balio dit, arbaso-izenen bidez zeruaren ahaide izanik, Jupiter nire familiakoa dela esateak? Ez al daukat nire emakume-eskuetan ezpata etsaia, heriotzaren oparia, izan beharko nituzkeen armen ordeztu?⁷⁸

Ai, Makareo, nahiago nuke biok batu gintuen unea nire heriotzaren ondoren iritsi izan balitz! Zergatik, anaia, maitatu ninduzun behin anaiek baino gehiago, eta izan nintzen zuretzat anaietzako arrebek izan behar ez dutena? Ni neu ere berotu ninduen pasioak, eta nire bihotz sutsuan sentitu nuen ez dakit zein jainko, esan ohi zuten bezain boteretsu. Nire aurpegiak kolorea galdua zuen, zurbiltasunak gorputz-atalak zimurtu zizkidan, nire ahoak beharturik ere ez zuen onartzen jan apur bat ere; ez nuen ondo lo egiten, gauak urtebete irauten zuen niretzat, eta inolako minak oinazetu gabe egiten nuen intziri. Ezin nion nire buruari azaldu zergatik egiten nuen, eta ez nekien zer zen maiteminduta egotea; baina ni banengoen.

Inudea izan zen, zaharrek izan ohi duten zorrotzasun horrekin, nire gaitzaz ohartu zen lehena; inudeak esan zidan lehenik: «Maiteminduta zaude, Eoloren alaba». Gorritu

⁷⁶ Ovidiok Kanaze eta Makareo anai-arreba gisa aurkezten ditu, Eolo jainkoaren seme-alaba gisa, baina ez dira hala azaltzen beste iturrietan.

⁷⁷ Euroak ekialdeko haizeen jainkoak dira, Eolo jainkoak kontrolatuak.

⁷⁸ Emakumea denez gero, etxeko lanak egiteko erabiltzen diren «armak» eduki beharko lituzke eskuetan.

egin nintzen, eta lotsak begirada magalera eramana zidan. Isiltasun hori aitoren nahiko adierazgarria izan zen.

Nire sabel desohoratuaren puze hasia zen, eta ezkutuko zama horrek baldartu egiten zituen nire gorputz-atal ahulak. Zenbat belar eta edabe ekarri zidan inudeak, eta bere esku adoretuaz zabaldu, nire erraietan hazten ari zen zama (hau da ezkutatu dizudan gauza bakarra) abortatzeko! Ai ene! Umea indartsuegia zen, jarri zizkidan ukenduei aurre egin zien, eta seguru libratu zen bere ezkutuko etsaiaz.

Ordurako bederatzi aldiz jaioa zen Feboren arreba ederra,⁷⁹ eta hamargarren ilargiak zigortzen zituen zaldi argitsuak. Ez nekien zerk sortzen zizkidan bat-bateko min horiek. Ez nengoen erditzetan trebatua, eta hasiberri batek bezain esperientzia gutxi nuen. Ezin izan nituen garrasiak ekidin. «Zergatik salatzen duzu zure krimena?», esaten dit andre zaharrak, eta lagun on baten moduan, nire ahotik irteten ziren deitoeak isiltzen ditu. Zer egin dezaket, gizagaixo honek? Oinazeak aiene horiek egitera behartzen nau; baina beldurrak, inudeak eta lotsak debeketzen dizkirate. Aieneei eusten diet, ihes egiten didaten hitzak irentsi, eta nire burua behartzen dut malkoak edatera. Heriotza begien aurrean nuen, eta Luzinak⁸⁰ bere laguntza ukatzen zidan. Eta hilez gero, desohore larria izango zen heriotza ere.

Nire ondoan etzan zinenean, tunika eta ileak urratuta, nire bularra berotu zenuen zureak ukitzearekin, eta esan zenidan: «Bizi zaitez, o arreba maite-maitea, bizi zaitez eta ez itzazu gal bi gizaki gorputz bakar batean; itxaropen onak indarra eman diezazula; zure anaiaren emazte izan behar duzu, eta ama egin zaituen horren andrea izango zara». Hilda nengoen, sinetsiezadazu; hala ere, zure hitzak entzutean berpiztu nintzen, eta nire sabelean ezarri ziren krimena eta zama hau.

Zergatik zoriontzin duzu zure burua? Eolo jauregiaren erdian eserita dago; krimena aitarengandik ezkutatu behar da. Andre zahar artatsuak haurra ezkututzen du, benda arinekin, olibondo zurixka baten adar hostotsuen artean; sakrifizio bat prestatzen ari denaren plantak egiten ditu, eta erritu-hitzak esaten ditu. Herriak eta nire aitak berak abiarazten dute sakrifizioa. Atalasea gertu zegoen; negar bat iritsi zen aitaren belarrietara, eta seinale horren bidez, haurrak bere burua salatu zuen. Eolok umea bortizki atera eta konturatzen da sakrifizioa faltsua dela.

⁷⁹ Febo eguzkiaren jainkoa da; hortaz, bere arreba, ilargia.

⁸⁰ Erromatar mitologian, Luzina jainkosak emakumeei erditzeko laguntzen zien.

Haren ahots haserrea entzuten da jauregian zehar. Nola itsasoa ikaritzen den haize bolara fin batek kizkurtzen duenean, nola lizarraren adarrak astintzen dituen Noto⁸¹ epelak, hala ikusiko zenituzkeen nire gorputz atal zurbilak dardarka. Ohean etzanda nengoen, eta nire gorputzaren dardarek ohe hori mugitzea eragiten zuten. Bat-batean sartu eta garrasika hasten da nire desohorea zabaltzen, kostata mantentzen ditu eskuak nire aurpegi tristetik urrun. Nik neuk, lotsaren lotsaz, ez nuen ezer egin malkoak isurtzeaz gain. Beldurraren hotzak kikilduta, mingaina ezin mugitu nengoen. Bilobatxoa leku bakarti batean abandonatu eta txakur eta hegaztiei emateko agindua emana zuen jada. Gizajoak garrasi egin zuen (ulertu izan balu bezala), eta ahal zuen ahotsarekin erregutzen zion aitonari.

Zer uste duzu sentitu nuela momentu hartan (zuk zeuk sentiturikotik ondorioztatu dezakezu), anaia maitea, nire begien aurrean ezezagun batek nire erraien fruitua oihan barrenera eramaten zuenean, mendietako otsoen otordu izan zedin?

Gelatik atera zen; orduan, azkenik, nire bularra kolpatu eta azazkalak masailetan sartzeko gai izan nintzen. Bien bitartean, aitaren zerbitzari bat, begitartea erorita, gelan sartu eta honako hitz lotsagarri hauek esan zizkidan: «Eolok ezpata hau bidaltzen dizu» (ezpata eskaini zidan) «eta agintzen dizu horrek zer esan nahi duen ulertzeko, zure ekintza kontuan izanda». Ederki ulertzen dut, eta adorez erabiliko dut ezpata izugarria. Aitaren oparia nire bihotzean hondoratuko dut. Zuk, sortu ninduzun horrek, opari hori eman behar al didazu ezkonsari gisa? Dote honekin, aita, alaba aberastuko duzu! Eraman itzazu urrutira ezkontza-suziak, Himeneo engainatua, eta egizu ihes, oin azkarrez, etxe gorrotagarri honetatik. Ekar itzazue nire kontra eskutan daramatzazuen suzi horiek, Erinia⁸² beltzok, eta piztu ezazue su horrekin nire su-meta.

Ezkon zaitezte zorte hobez, ene ahizpa zorionekoak, baina gogoan eduki nazazue, ni hil ondoren. Zein huts egin du orain dela ordu gutxi erditutako haurrak? Zein egiterekin gogaitu du jaioberriak aitona? Heriotza merezi izan badu, pentsa bedi merezi izan duela. Ai! Gizajoa nire delituaren ondorioz zigortu dute.

Ene semea, zure amaren oinazea, pizti basatien harrapakina, ai ene! Zure jaiotza-egunean laurdenkatu zaituzte! Ene semea, zoritxarreko amodio baten erakusgarri dohakabea: hauxe izan da zuretzat lehen eguna, eta hauxe izango da, halaber, azkena. Ez

⁸¹ Hegoaldeko haizea, uda bukaerako eta udazkeneko ekaitzak ekartzen dituena.

⁸² Infernuko jainkosak.

didate utzi merezi zenituen malkoez zu estaltzen, ez eta zure hilobiari nire ile-adatsa eskaintzen; ez naiz zure gainera bota, ez ditut zure musu hotzak jaso. Pizti gosetiek urratzen dute nire erraien fruitua. Ni neu ere joango naiz, heriotzaren bidez, nire haurtxoaren itzalaren atzetik, eta luzaroan ezingo dute esan ama naizenik, ez eta umeaz gabetua naizenik ere.

Zuk, ordea, o zuk, arreba dohakabeari ezkon-hitza alferrik eman zenionak, erregutzen dizut, jaso itzazu zure semearen zati barreiatuak, eta itzul itzazu bere amarengana; jar itzazu hilobi berean, eta kutxa bakar batek, estua izan arren, gorde gaitzala biok. Bizi zaitez nitaz oroitzuz, eta isuri itzazu malkoak nire zaurien gainean; maite banauzu, ez egin atzera, beldurrez, zure maitalearen gorpuaren aurrean. Bete itzazu, arren, zure arrebaren mandatuak, hainbeste maitatu zenuen horrenak. Nik gure aitaren mandatuak dastatuko ditut.

XII

MEDEAK JASONI

[Medea deserrituak, behartsuak, mespretxatuak hitz egiten dio ezkonberri horri: edo zure erreinuko kontuek ez dizute denborarik uzten libre?]

Baina nik, kolkidarren erreginak, gogoan dut, izan nuen denbora zuretzako, nire arteek lagun zintzaten eskatzen zenuenean. Orduan, patu hilkorrak banatzen dituzten ahizpek nire ardatzak hustea erabaki zuten.⁸³ Orduan izan nuen, Medeak, errurik gabe hiltzeko aukera. Geroztik bizi izan dudana guztia tormentu bat izan da uneoro.

Ai ene! Zergatik bilatu zuen Pelioko zuhaitzak,⁸⁴ beso gazteek bultzaturik, Frixoren aharia, behin batean?⁸⁵ Zergatik ikusi genuen behin kolkidarrek Argo Magnesiarra,⁸⁶ eta edan zenuten, greziarren osteak, Fasis ibaiko ura?

Zergatik gustatu zitzaizkidan niri behar baino gehiago zure ile horia, zure edertasun harmoniatsua, eta zure mihiaren grazia itxuratia? Edo, popa ezezaguna gure hondarretara heldu eta gizon ausartak ekarri zituenean, oxala nire belarren babesik gabe aurre egin izan balio Esonida⁸⁷ ahanzkorrek idien suzko arnasari eta aurpegi makurrei, eta oxala erein zituen adina hazi jaso izan balitu etsai, ereilea bera haren uztaren biktima eror zedin.⁸⁸ Zenbat traizio hilko zatekeen zurekin, kriminal hori! Zenbat kalte aldenduko zatekeen nire burutik!

Esker txarreko bati faboreak aurpegiratzean badago nolabaiteko plazer bat. Gozatuko dut. Hori da zugandik lortuko dudana poztasun bakarra.

Zure eskarmenturik gabeko ontzia kolkidarrengana gidatzera behartuta, nire aberriko erreinu zorientzuetan sartu zinen. Han ni neu, Medea, izan nintzen hemen zure emazte berria den hori. Haren aita den bezain aberatsa zen nirea ere. Hura Efiran, bi

⁸³ Parkei egiten die erreferentzia; Parkak patuaren jainkosak ziren. Hiru ahizpa ziren, iruleak, eta iruten zituzten hariak pertsonen bizitzak ziren. Haria moztea erabakitzen zutenean, pertsona horren bizitza bukatu egiten zen.

⁸⁴ Argo itsasontzia. Ontzi horretan iritsi ziren Jason eta Argonautak Kolkidara. Ontzia Pelio mendiko zuhaitzen egurrez egina zegoen.

⁸⁵ Frixoren ahariaren urrezko larruaren bila joan ziren Argonautak Kolkidara, Pelias erregeak aginduta.

⁸⁶ Jasonen aita Magnesiako erregea zen.

⁸⁷ Esonida, Esonen semea delako.

⁸⁸ Jasonek Kolkidako errege Eetesi bere egitekoa kontatu zionean, hark esan zion urrezko larrua emango ziola, froga batzuk pasa ondoren: lehenik, sua arnasten zuten bi zezen uztartu eta horiekin lurra landu behar zituen; ondoren, Atenea jainkosak Eetesi berari emandako herensuge-hortz batzuk erein behar zituen; bertatik, gerlariak hozituko ziren. Gainera, larruaren beste zaintzailea garaitu behar zuen: sekula lo egiten ez zuen herensugea.

itsasok ukitzen duten lurraldean da nagusi; nirearen jabetza da Pontoaren ezkerraldetik Eszitia elurturaino iristen den oro.

Eetesek ostatuan hartzen ditu Pelasgoko gazteak, eta zuen greziar gorputzak gustu handiz apainduriko ohatzeetan etzaten dira. Orduan ikusi zintudan; orduan hasi nintzen zein zinen jakiten. Hura izan zen nire bihotzaren ezbeharren hasiera. Zu ikusi eta hil egin nintzen, su ezezagun batek kiskali ninduen, jainko handien aldare ondoan dauden pinuzko suziak kiskaltzen diren modu berean. Ederra zinen, eta patuak bultzatzen ninduen. Zure begiek berekin eraman zuten nire begirada. Gaizto alena, konturatu zinen. Zein da gai amodioa ondo ezkutatzeko? Sugarra bistako bihurtzen da, haren zantzuek salatzen dutenean.

Bien bitartean, legeak agindu zizun idi hezigabeen lepo basatiak uztarri ohigabekoz uztartzeko. Marteren zezenek adar beldurgarriak zituzten; ikaragarria zen haien suzko arnasa; haien oinak osorik brontzezkoak ziren, eta brontzezkoak ziren haien muturreko apaindurak, horiek ere arnasotsez belztuak. Agindu zaizu, halaber, esku madarikatu horrekin haziak zelaietan zehar barreiatzea, herri bat hozituko duten haziak, haiekin jaiotako armak zure gorputzaren kontra jarriko dituztenak. Bidegabeko uzta da nekazariarentzat. Zure azken lana izango da trikimailuren batekin engainatzea loak hartzen ez dakien zaindariaren begiak.

Eetesek esan zuen esan beharrekoa. Guztiok altxa zineten nahigabeturik, eta mahai altua purpura koloreko ohatzearen ondotik kendu zuten. Zugandik zein urrun zeuden orduan erreinua (Kreusaren dotea), zure aitagarreba eta Kreonte handiaren alaba!

Nahigabetuta egiten duzu alde; zure pausuak jarraitzen ditut, begiak bustita, eta nire mihiak xuxurlatu zuen: «Agur».

Nire gelan jarritako ohean sakonki minduta erori nintzenean, gau luze osoa pasa nuen negarrez. Nire begien aurrean zeuden zezenak eta zorigaiztoko uzta; nire begien aurrean zegoen herensugea, beti esna; hemen dago maitasuna, hemen beldurra; beldurrak maitasuna bera handitzen du.

Goiza iritsi zen eta nire ahizpa maitearen bisita hartu nuen logelan; ileak nahasita aurkitu ninduen ohean etzanda, aurpegia ezkutuan, guztia nire malkoekin bustita.

Miniarrentzako⁸⁹ laguntza eskatzen du (emakume batek eskatzen du, beste emakumeak izango du). Esonen seme gazteari⁹⁰ ematen diot hark eskatzen duena.

Badago baso bat, itzala pinuek eta arte-hostailek ematen diotena; kostata sartzen dira bertan eguzki-izpiak; bertan dago —bai, bertan zegoen— Dianaren tenplu bat; bertan dago esku latzek eraikitako urrezko jainkosa bat: ezagutzen duzu, ala leku horiek nirekin batera desagertu ziren zure burutik?

Bertara iritsi ginen. Zu hasi zinen hitz egiten, zure aho gaizto horrekin:

«Zoriak eman zizun nire salbazioarekiko eskubide eta hautamena, eta zure esku daude nire bizitza eta heriotza. Galbidearen kausa izan ahal izatea ez da botere txikia, norberarentzat botere hori gustuko bada; baina loria handiagoa izango naiz zuretzat, salbatzen banauzu. Nire ezbeharrengatik erregutzen dut, zu izan baitzaitezke haientzako aringarri, zure leinuagatik, eta dena ikusten duen⁹¹ zure aitonaren numenagatik, Dianaren hiru aurpegiengatik eta haren antzinako errituengatik, eta beste jainkoengatik, menturaz herri honek baldin baditu; o, birjina, errukitu zaitez nitaz, errukitu zaitez nitarrez; egin nazazu, fabore hauengatik, betirako zurea. Izan ere, apika Pelasgo bat ez baduzu mespretxatzen senar gisa (baina nondik etorriko dira niregana hain jainko aldeko eta aproposak?), desager bedi nire espiritua haize leunen artean, zu ez zaren emazte bat izaten badut nire ezkontza-ohean! Ikus beza Junonek, ezkontza sakratuak zuzentzen dituen horrek, zeinaren marmolezko tenpluan gauden oraintxe».

Horrek (eta zer balio du horrek?) eta zure eskuinak, nire eskuinari loturik, hunkitu zuten neskaxa soil baten arima. Zure malkoak ere ikusi nituen (edo horietan ere iruzurra zegoen?). Hala, segituan, zure hitzek liluratutako neskaxa izan nintzen.

Eta brontzezko apodun zezenak uztartzen dituzu, zure gorputza erre gabe. Eta lur gogorra arrailtzen duzu, agindu zizuten goldeaz; zelaiak hortz pozoituez betetzen dituzu, haziak bailiran; eta jaiotzean, soldaduak ezpata eta ezkutuak daramatza. Ni neu, edabeak eman nizkizun hau, eserita geratu nintzen, zurbil, bat-batean sortutako gizonek armak zeuzkatela ikusi nuenean, lurretik jaiotako anaia haiek —hori bai gertakizun miresgarria!— esku armatuak batzuk besteen kontra jaurtitzen zituztela ikusi nuen arte.

⁸⁹ Argonautak, Miniarren ondorengoak.

⁹⁰ Jasoni.

⁹¹ Eguzkia, Eetesen aita.

Une hartan, zaindari logabeak, bere ezkatzen txinpartek ikaratuta, txistua jo zuen, eta haren gorputz bihurrituak atzean uzten zuen lurra garbitzen zuen.

Non zeuden ezkonsariko ondasunak? Non zegoen zure emazte bikaina, eta itsaso biki baten urak bereizten dituen Istmoa?⁹²

Ni, hainbeste denbora eta gero barbarotzat naukazuna, pobrea naiz orain zuretzako, erruduna naizela uste duzu; begi kartsu batzuk lotara jarri nituen nire belarren eraginez eta larrua arriskurik gabe eskaini nizun, zuk ostu zenezan.

Aitari traizio egin nion, baita nire erreinuari ere, eta aberria utzi nuen. Opari gisa hartu dut deserriean egoteko baimena eman izana. Nire birjintasuna lapur kanpotar baten harrapakina izan zen. Nire ahizpa ezin hobea ama maitearekin batera abandonatu nuen.

Baina ihes egitean ez zintudan utzi, anaia, ni gabe. Hau da nire eskutitzak isilpean gordetzen duen zati bakarra; nire eskuinak adorea izan zuen orain idatzi ezin duena egiteko.⁹³ Nik neuk laurdenkatua izan behar nuen, baina zurekin batera.

Hala ere, ez nintzen beldur izan —zeren beldur izan ninteke horren ondoren?— nire burua itsasoari eskaintzean, emakume eta errudun izanik.

Non dago maiestate jainkotiaria? Non daude jainkoak? Itsasoan, merezi genuen zigorra jasoko genuen; zuk leialtasun ezagatik, sineskorkeriagatik nik. Oxala Sinplegadeek besarkaturik desegin bagintuzte, eta nire hezurak zureetara itsasi balira; oxala Eszila jaleak bere txakurretara jaurti izan bagintu, haien jana izan gintezen. (Eszilak gizonen eskergabetasuna zigortu beharko zukeen). Eta xurgatzen duen beste ur botatzen duen horrek oxala hilobiratu izan bagintu Trinakria uhartearen uren azpian.

Onik eta garaile zatoz hiri hemoriarretara,⁹⁴ eta urrezko artilea eskaintzen zaie bertako jainkoei.

Zergatik hitz egingo dut Peliasen alabez, zeinak alaba-maitasunak kriminal bihurtu zituen? Eta haien aitaren atalez, zeinak esku birjinek laurdenkatu zituzten? Beste batzuek egotz diezadatela errua; zuk laudatu egin behar nauzu, zuregatik hainbestetan izan bainaiz behartua kriminal izatera.

⁹² Korintoko Istmoa: Peloponesoko penintsula Grezia kontinentalarekin lotzen du.

⁹³ Medeak bere anaia hil zuen Jasonekin ihes egiterakoan.

⁹⁴ Siziliaren antzinako izen grekoa.

Ausarkeria izan zenuen (o, ez dago hitzik hainbesteko mina ondo deskribatzen duenik), ausarkeria izan zenuen honako hau esateko: «Alde egizu Esonen jauregitik». Behartuta irten naiz jauregitik, nire bi semeen eta zureganako maitasunaren konpainian, zeina beti baitaramat nirekin.

Himeneoren⁹⁵ kantua nire belarrietara iritsi da eta suziek, haien argiak piztean, distira egin dute; txirulak, zuen ohorez ezkontza-kantuak jotzen ditu, nahiz eta niretzat hileta-tronpeta baino tristeagoak diren. Momentu hartan, beldur handia sartu zait, ez bainuen imajinatzen horren gaiztotasun handia existitzen zenik; baina hotzak nire bular osoa bereganatu zuen.

Jendetza presaka dabil korrika, eta oihukatzen dute: «Himen, Himeneo». Zenbat eta gertuago egon ahots hori, orduan eta min gehiago ematen zidan. Nigandik urrunduta, bakoitzak bere aldetik, zerbitzariak negar egiten zuten, malkoak ezkutatzuz (zeinek nahiko luke halako ezbehar baten mezularia izan?).

Ni ere gustura nengoen, zer pasatzen ari zen ziurtasunez jakin gabe; baina nire arima triste zegoen, jakingo balu bezala. Nire seme gazteena, agindupean eta ikusteko irrikaz, ate bikoitzaren sarrera ondoan geratu zenean, esan zidan: «Atera hortik, ama; nire aita Jason da segizioaren burua, eta urrezko distiraz zigortzen ditu zaldien enborrak»; berehala, nire tunika urratu eta bularra kolpatu nuen, eta nire masailak ez ziren nire eskuez ziur egon. Nire gogoak jendetzaren artean murgildu eta haren ile orraztutik girlandak erauztera bultzatzen ninduen. Neure ileetatik tiraka eginez, ahalegin handia egin behar izan nuen ez oihukatzeke «neurea da», eta nire eskuak zure gainean ez jartzeko.

Aita samindua, poztu zaitetz; poztu zaitetzke, Kolkidar abandonatuak; nire anaiaren itzalak, jaso itzazue hileta-eskaintzak. Erreinua, aberria eta etxea galdua, senarrak aterperik gabe utzi nau (eta bera zen dena niretzat!).

Gai izan naiz suge eta zezen basatiak menderatzeko; kasu bakarrean ez dut lortu: ene senarrarenean. Nik, nire edabe jakintsuekin su ikaragarriak atzera egitera behartu nituen honek, ezin ditut neure garrak ekidin. Arao, belar eta sorginkeria berberak abandonatu naute; ez didate laguntzen ez jainkosak, ez Hekate boteretsuaren misterioek.

⁹⁵ Ezkontzen jainkoa.

Eguna ez zait atsegina, gauak latzak izaten dira, logabeak, eta loak ez du zorigabe hau hartzen bere bular leunean. Nik, dragoia lokartu nuen honek, ezin dut neure buruarekin gauza bera egin. Erabilgarriagoa zaio nire zientzia edonori niri baino.

Nik salbatu nituen soin-atalak nire etsaiak besarkatzen ditu orain, eta emakume hark gozatzen du nire nekeen emaitzaz.

Eta zure emazte ergelaren aurrean harrotzen saiatzen zaren bitartean, eta bere belarri bidegabeentzako egokia den zerbait esaten, akaso ari zara salaketa berriak asmatzen nire kontra eta nire ohituren kontra. Egin beza barre hark, eta dibertitu bedi, nire bizioekin; egin beza barre eta etzan bedi, bikain, purpura tiroarrear. Negar egingo du; eta, kiskalita, nire garra gaudituko du. Burdina, sugarrak eta zuku pozoitsuak dauden bitartean, ez da Medearen etsairik geratuko mendekua jasan gabe.

Eta erreguek burdinazko erraiak hunkitzen badituzte, entzun itzazu orain nire sentimenduak baino umilagoak diren hitzak. Zu nirekin askotan izan zinen bezain erregutzaile izan naiz ni zurekin, eta ez dut zure aurrean erortzeko zalantzarik.

Zuretzako ez badut ezer balio, begira itzazu gu bion semeak: amaorde krudelak anker jokatu du nire umeekin. Eta zure antz handiegia dute, eta antzekotasun horrek hunkitzen nau, eta begiratzen diedan bakoitzean bustitzen zaizkit begiak.

Jainkoengatik erregutzen dizut; antzinako sugarraren izpiengatik; nire eta gure maitasunaren berme diren ene bi semeen merezimenduengatik; itzul iezadazu ohea, zeinarengatik burugabe honek hainbeste gauza utzi zituen! Bete ezazu promesa eta itzul iezadazu laguntza.

Ez dizut zezen eta gizonen aurka erregutzen; ezta sugeak zure amarruek garaituta egin dezan lo. Zeu eskatzen zaitut, merezi izan dudan hori, zuk zeuk eman zenidan hori, zeinarekin ama izan naizen, zu aita izan zaren une berean.

Nire dotea non dagoen galdetzen duzu? Zuk larrua lapurtzeko goldatu behar zenuen zelai hartan ordaindu nuen; urrezko ahari hori da nire dotea, larru preziatuagatik miresgarria; «itzul iezadazu» esango banizu, ezetz esango zenukeen hori. Nire dotea zara zu, onik zarelako, nire dotea da orobat nik salbatu nuen gazteria grekoa.

Joan zaitez orain, maltzur hori; aldera itzazu Sisiforen semearen aberastasunak.⁹⁶ Zure bizitza, emazte eta aitagarreba boteretsuak izatea, eta haxe bera, eskergabea izateko aukera, niri zor dizkidazu.

Horiei laster...⁹⁷. Baina zer axola du zigorra aurreikusteak? Nire haserreak mehatxu izugarriak daramatza barrenean. Haserreak naraman tokira joango naiz. Damutuko naiz, agian, egite honetaz; damutzen naiz, halaber, senar desleial bat babestu izanaz.

Hau ikusiko du orain nire bularra torturatzen duen jainkoak. Egiaz, nire gogoa zerbait beldurgarria prestatzen ari da.

⁹⁶ Kreonte, Kreusaren aita, Sisiforen semea zen.

⁹⁷ Isilpetu egiten du Kreusa eta Kreonteren kontra prestatzen ari dena (laster kiskalita hilko baitira), eta Jasonen aurka gertatzen ari dena.

BIBLIOGRAFIA

Bilbao, Gidor (2002). *Latin-literaturarako sarbidea. Idazleak eta idazlanak*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Elhuyar Hizkuntza eta Teknologia. *Elhuyar hiztegiak* [online hiztegia]. Azken kontsulta 2017ko maiatzaren 18an. <<https://hiztegiak.elhuyar.eus/>>

Euskaltzaindia (1997). 76. *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*. Azken kontsulta: <<http://www.euskaltzaindia.eus/>>

Euskaltzaindia (1998). 82. *Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak*. Azken kontsulta: <<http://www.euskaltzaindia.eus/>>

Euskaltzaindia (2002). *Latina-euskara hiztegia*. Azken kontsulta: <<http://www.euskaltzaindia.eus/>>

Euskaltzaindia (2004). 142. *Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak*. Azken kontsulta: <<http://www.euskaltzaindia.eus/>>

García de Diego, V., Mir, J.M. (2011). *Diccionario ilustrado Latino-Español, Español-Latino*. Barcelona: VOX.

Moya del Baño, F. (1986) *Ovidio. Heroidas*. Salamanca & Madril: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

Sarasola, I. *Zehazki gaztelania-euskara hiztegia*. [online hiztegia]. Azken kontsulta 2017ko maiatzaren 17an. <<http://www.ehu.eus/ehg/zehazki/>>

Showerman, G. (1914). *Ovid. Heroides. Amores*. Londres: Loeb Classical Library.